ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-12-10
ASTELEHENA
389. ZENBAKIA
9. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET

TOKIKOM

Durangoko Azoka, arrakastatsu

Etxeraino sartu zaigu, Azoka TBri esker | 25

Azoka TBko Goienako taldea. | E.A.

Arrasateko bideak hobetu guran, berezko aberastasuna gal ez dadin | 9

Galdutako gazteak: "Gaua kobazuloan pasa beharko genukeela uste genuen" | 4

Bisitari dezente izan dira turismo guneetan | 4

Gipuzkoa Euskadiko txapelketako izar

Gizon eta emakumezkoetan Gipuzkoako selekzioa izan da garaile Arrasaten jokatu den Euskadiko txapelketan | 18

Gipuzkoako selekzioko jokalariak garaipena ospatzen, kopa eskuetan dutela. | JOSETXO ARANTZABAL

Familia ugariak: poz eta behar berriak batera

Arrasateko bikote batek hirukiak izan ditu eta beste alaba bat dauka | 2

Familia osoa, paseatzen. | M. BELASTEGI

"12 urte nituenean ikusi nuen argi ez nuela okupazioan parte hartuko"

Sahar Vardi
Israeldar aktibista | 8

Akordeoi lehiaketako txapela, Poloniara | 24



'Osabide' euskaratzeko eskaera, Aramaiotik | 5

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 18 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 26 | TELEBISTA-IRRATIA 29 | ZORION AGURRAK 30 | JAIOTAKOAK 31 | DENBORA-PASAK 31

%15eko deskontua

► Zoaz 17. orrialdera.

BEGIONDO
optikaren eskutik

Carrefour GORBEIA
Urtarrilaren 12ra arte
ZATOZ DOAN*
Carrefour...
ARRASATE
ARETXABALETA
ESKORIATZA
ETXABARRI-IBIÑA
*60 € baino gehiagoko erosketa eginda, Carrefour Gorbeiara etortzeko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

Familia ugariak: poz eta behar berriak batera datozenean

- Familia ugariendako laguntza publikoak txikitu egin dira krisiarekin
- Arrasateko bikote batek hirukiak izan ditu eta beste alaba bat dauka
- Familiendako politika integralak eskatzen dituzte elkarteek

"Hirukiak izan behar dituzten familia guztiei laguntza eman dio Robertoren eta Nataliren familiari. "Eskerrak eman nahi nioke alkateari horregatik", dio Robertok.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Roberto Hernandez eta Carmen Natali Loureiro arrasatearrek Nathalie 9 urteko alabari anaiatxo edo ahizpatxoa ematea erabaki zuten. Bada, orain, Nathaliek hiru anai-arreba ditu: Irantzu, Enaitz eta Izadi hirukiak. Hilaren 17an, hiru hilabete izango dira jaio zirela; zazpi hilabeteko jaio ziren, 35 asteko haurdunaldia eta gero.

Hirukiak izateak bizitza aldatu die goitik behera, Roberto kontatzen duen moduan: "Hiru zetozela jakin genuenean, zur eta lur geratu ginen: emaztea negarrez eta neu, mutu". Izan ere, haurdunaldia nola joango zen kezkaz gain, bizimodu berriak zekarren kezka piztu zitzaien: "Gure egoera ekonomikoa gogorra da: hipoteka eta mailegu pertsonala ditugu; eta esnea, pixohialak, arropa, ikastola... Ez dakigu nola egingo diogun aurre; gerrikoa pixka bat gehiago estutu beharko dugu".

Egunerokoa ere zeharo bestelakoa da orain: "Ohiko egun baten, erloju kontra bizi gara: umetxoei hiru orduan behin eman behar zaie jaten; bularra ere hartzen dute; eta alaba nagusia ere zaindu behar dugu. Ez dugu ia lorik egiten eta ez daukagu geuretako denborarik ere. Bagenekien zaila izango zela, baina imajinatzea gauza bat da, eta oso bestelako bat, hori bizi izatea".

Zorionez, hiru umeak ondo jaio ziren eta, pixkana-pixkana bada ere, familia berria badoa bizimodu berrira ohitzen. Aitak dioskunez, "hiru izateko, pisu onarekin jaio ziren. Inkubagailuan egon ziren hamar egun, eta ondo dabiltza handitzen. Oso pozik gaude sortu dugun familiarekin".

Denek ez dute titulu ofiziala

Erditze baten bi ume baino gehiago dituzten familiek eta, oro har, familia ugariek badituzte laguntza publiko batzuk. Ez dira multzo txikia, gainera. Datu borobilik ez dagoen arren, familia ugari titulua dutenak 21.000 bat dira Euskadin. Beraz, benetan 21.000 baino familia ugari gehiago dago, guztiek ez dutelako titulua atera edo zeukaten hainbati kadukatu egin zaielako. Familia ugarien titulua kasuan kasuko diputazioak ematen du, eta Eusko Jaurlaritzak familia ugarien txartela ematen du, tituluaren ziurtagiri gisa balio duenak.

Familia horiek laguntza handiagoa behar izaten dute. Beste herrialde batzuetan daudenekin alderatuta, familia ugariendako hemengo laguntzak ez dira etxafuegoak botatzeko modukoak; kontuan hartu behar da, gainera, krisiak eragina izan duela. Baina badira zerbait, hala ere; eta askoko erditzea izan duten familiek badute eurendako bakarrik den laguntzaren bat. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Eusko Jaurlaritzak ematen ditu samurtasun batzuk. Gizarte Segurantzak ere ematen ditu.

Laguntzak eskatzeko orientazioa ematen du Hirukidek, Euskadiko familia ugarien elkarteak.

200 euro gutxiago

Euskadin, jaiotako umearengatik eta norbere ardurapean dagoen seme-alaba bakoitzarengatik laguntza batzuk ematen dira. Erditze bakarrean hainbat ume izateagatik, umearen lehenengo urterako familiaren errenta-mailaren araberako laguntza puntuala dute familiek. 2.000 bat eurokoa da.

Krisiak gehiago eragin die, ordea, lana eta familia bateratzeko neurriei, eszedientziei eta lan-egunak txikitzeari: "200 euro baino gehiago txikitu dira laguntza horiek. Nahi eta nahi ez, horrek birritan pentsarazten dizu eszedentzia eskatu edo ez", esaten du Hirukideko presidenteak, Natalia Díez-Caballerok.

Babes publiko txikiak ez du animatzen seme-alaba asko izatera; hala, Euskadiko jaiotze-tasa %3 txikitu zen urteko lehenengo hiruhilekoan.

Laguntza horien kalte barik, neurriak erabaki ditzake ere udal bakoitzak; adibidez, Gasteizko Udalak jaiotzen zen ume bakoitzarengatik ematen du laguntza bat, baina urte eta erditik gora doa hura eman barik, eta Hirukideko presidenteak "kenduko duten antz guztia" hartzen dio. Arrasateko Udalak automobilarekin alde zaharrean sartzeko

III. Familien Plana

Baina laguntza puntualak baino gehiago eskatzen dituzte familia ugariek. Eta hor dago benetako hutsunea eta benetako arazoa: "Zeharkako politika publikoak behar ditugu, familion alde legislatzea etxebizitzan, zergatan..."; eta, horrekin batera, "familia ugarioi bizi osoan errekonozitu eta aitortu diezaguten izaera hori", esaten du Hirukideko presidenteak. Eta gogora ekartzen du familia ugariek ume bakoitzeko jasotzen dituzten laguntzak luzatzera konprometitu zela jarduneko Eusko Jaurlaritza, baina ez duela bete.

Itxaropen osoa EAEko Familiei Laguntzeko 2011-2015 eperako III. Erakunde-arteko Planean dituzte Hirukide elkartekoek. Izan ere, plan horretan familia ugariek dituzten konpentsazio -ondasun fiskal eta ekonomikoei eusteaz gain, dagoeneko diru-partida konkretu batzuk proposatzen dira eta familien aldeko politika batzuen asmoak, behintzat, ageri dira. Baina plan hori, gaur egun, zirriborro fasean dago.

DATUAK

3
SEME-ALABA

Bi helduk eta, gutxienez, hiru seme-alabak edo heldu bakarrak eta, gutxienez, bi seme-alabak osatzen dute familia ugaria.

600
FAMILIA

Euskadin, 21.000 familiak dute familia ugari titulua; horietatik 600 eta 800 artean dira askoko erditzea izan dutenak.

Familia ugarien Hirukide elkarteak hainbat topaketa egiten ditu urtean zehar; argazkian, Donostiako bat. | HIRUKIDE

animuak eman nahi dizkiegu. Gu oso pozik gaude sortu dugun familiarekin", diote Roberto eta Carmen Natali arrasatearrek, lau seme-alabokin. | MONIKA BELASTEGI

Nagusienak 21 urte bete arteko laguntza

TITULUA
Familia ugarien tituluak abantailak ematen ditu Hego Euskal Herrian eta Espainian. Foru Aldundian eskatu behar da.
Seme-alaba nagusienak 21 urte bete arte edo, ikaslea bada, 26 bete arte balio du.

TXARTELA
Eusko Jaurlaritzak familia ugarien txartela ematen du, EAErako balio duena. Titulua duten familietako 5 urtetik gorako kideek izan dezakete. Tituluaren abantaila berberak eta beste batzuk ematen ditu.

DIRULAGUNTZAK
Norberaren ardurapean dagoen seme-alaba bakoitzarengatik laguntza puntuala dago. Hirugarren eta hurrengo seme-alabengatik, horiek 6 urte bete arte jasotzen dute. Bestalde, 3. seme-alabatik hasita, jaiotako ume bakoitzarengatik laguntza dago: aurten, 450 euro.

ASKOKO ERDITZEA
Erditze bakarrean bi ume edo gehiago izan dituztenek laguntza bereziak dituzte: bi izan dituztenendako 2.000 euro pasa izan dira aurten. Bestalde, 6 astean zehar prestazio berezi bat jasotzeko eskubidea dute.

Elkartasun sarea, elkarteen eskutik

Administrazioen laguntzari gehitzen zaio jendartetik dagoen babesa, eta hor sartzen da Hirukide, Euskadiko familia ugarien elkartea. Carmen Natalik eta Robertok Hirukidera jo zuten, eta elkarteak nondik nora jo orientatu zituen, izan ere, "nahiko galduta" zeudela onartzen digute.

Bi guraso eta hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familiak eta guraso bakarra eta bi seme-alaba edo gehiago dituztenak kontsideratzen dira familia ugaria (gutxitasuna duten edo lanerako desgaituta dauden seme-alaba bakoitza bi bezala kontatzen da), eta horren titulu ofiziala eska dezakete Foru Aldundian. Titulu horrek Hego Euskal Herri eta Espainiarako balio du eta zenbait abantaila lortzeko modua ematen die familiei.

Hirukidek 700 familia bazkide ditu. "Familia handia" osatzen dute, euren esanetan; 37.000 guraso eta umek osatzen duten familia, hain zuzen ere. 700 familia horietatik 20 eta 30 artean askoko erditzea izan duten familiak dira. Estrapolazioa egiten badugu, Euskadin familia ugarien titulu ofiziala duten 21.000 familia ingurutik 600 eta 800 artean dira halakoak.

Familia horiek aparteko bultzadatxoa behar izaten dute. Natalia Díez Caballerok honela azaltzen du haienganako tratamendua: "Lehenengo, seme-alabengatik zoriondu egiten ditugu, nahiz eta euren egoera ere ulertzen dugun. Gero, harrera egiten diegu eta eska ditzaketen laguntza publikoen gaineko informazioa ematen diegu".

Hori baino gehiago egiten du Hirukidek: "Egoera berean egon diren familiekin harremanetan jartzen ditugu; horien poltsa bat daukagu elkartean. Familia horiek euren esperientzia konpartitzen dute eta gomendioak ematen dizkiete, horrela lehenengo hilabeteak ahalik eta ondoen eman ditzaten", esaten du Díez-Caballerok.

Laguntza materiala ere ematen du Hirukidek: ume askorendako kotxetxoa edo bestelako material-bankua du, familiei uzteko, edo beste guraso batzuekin harremanetan jartzen ditu elkarri uzteko material hori. Azkenik, zenbait enpresarekin hitzarmenak dituzte, eta etxetresna elektrikoak edo premia-premiazko produktuak jasotzen dituzte dohaintzan.

Carmen Natali, Roberto eta Nathalie, hirukiak paseatzen. | MONIKA BELASTEGI

Aste bukaera euritsua izan arren, bisitari dezente izan dira turismo bulegoetan

- Oñatin eta Leintz Gatzagan izan da turista gehien
- Aurretik erreserba egindako talde handiak ere izan dira

Leintz Gatzagan, egubakoitzeko bisita gidatuko taldetxoa. | UBANE MADERA

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Konstituzioko zubia eta Sortzez Garbiko aste bukaera uste baino hobeak izan dira, Debagoieneko turismo arloko arduradunen esanetan. Ez zuten aparteko aurreikuspenik, eta azkenean, bisitari dezente izan dira bailaran. Batzuk Debagoienekoak bertakoak ziren; Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste leku batzuetakoak ere etorri dira; eta Kataluniatik eta Valentziatik ere banaka batzuk.

Oñatiko turismo bulegoko Edurne Urteaga langileak hainbat bisita gidatu eman zituen. Zapatuan, oso eguraldi patalarekin, taldetxoa zegoen dagoeneko turismo bulegoaren atean, bisita gidatua egin guran. Parrokia eta Unibertsitatea ikusi zituzten eta norberak bere kontura bisitatzeko lekuen gomendioak jaso zituzten. Arratsalderako bazuten talde batek erreserbatutako bisita, eta egubakoitzean ere eman zuten. "Etorri diren gehienak katalanak izan dira; gero, erreserba eginda zeukaten talde handiak; nafar batzuk bigarren urtez etorri dira. Unibertsitatea, parrokia, Gomiztegi, Arantzazu, Arrikrutz... dena ikusi dute", esan zigun Edurne Urteagak. Herria "asko gustatzen" zaiela dio. "Aitortzen digute Oñatira ailegatzea zail samarra dela; baina Oñatik merezi du", gaineratzen digu Urteagak.

40 lagun egun bakarrean

Leintz Gatzagan ere "salbatu" dute zubi eta aste bukaera turistikoa, Gatz Museoko Aitziber Gorosabelek dioskunez. Egubakoitzean, zapatuan eta domekan, hiruretan osatu ziren taldeak bisitetarako. Zapatua izan zen egun onena: 30 laguneko talde bat eta hamabiko beste bat izan zituen, ume eta guzti, Bilbokoak eta Eibarkoak. "Oso ondo ibili zirela, umeak ere gustura egon zirela esan zuten", esan digu Gorosabelek.

Bergaran, Nafarroako eta Arabako bisitariak izan ziren, eta bi bisita gidatu eman zituzten turismo arduradunek.

Zapatu goizean, parrokian, azalpenak entzuten. | AITZIBER ARANBURUZABALA

IGNACIO VALERO ETA SILVIA NUÑEZ
BARTZELONA

"Eguenean etorri ginen; Hondarribia, Donostia eta Zarautz bisitatu eta gero, gaur Oñatira etorri gara, eta gero, Idiazabalera. Gipuzkoa bisitatzea erabaki genuen, eta orain arte asko gustatu zaigu. Gaurko plana da Oñati bisitatzea, batez ere Sancti Spiritus unibertsitatea, eta gero Arantzazura igotzea. Eguraldi aldetik... zer egingo diogu, bada; inguruak berde daude euria egiten duelako. Gainera, oporretan beti gabiltza denok gustura, nahiz eta euria egin".

ANGEL INDA
ARRASATE

"Logroño, Madril eta Leongo lagunak hemen daudela aprobetxatuta, Oñatira etorri gara; neu aspaldian etorri gabe nintzen. Hemendik, gero, Arantzazu ikusiko dugu eta Arrasateko elizateak, Udala, Eskoriatza... ere bai".

PACO MONLEON
VALENTZIA

"Fagorren urte askoan egin nuen lan, eta zoragarria da paisaia, jendea... dena. Arrasate oso ondo ezagutzen dut, baina Gatzaga ez nuen ezagutzen. Oso pozik ibili gara. Egun lainotsuetan paseatzea oso polita da hemen".

Galdu ziren gazteak: "Pentsatzen genuen gaua kobazuloan pasa beharko genukeela"

- San Valerio kobazuloan sei orduan galduta ibili ziren lau gazte
- Susto ederra hartu zuten, baina, 21:00etan, onik topatu zituzten

UBANE MADERA | ARRASATE

San Valerio (Meatzerreka) kobazuloan egubakoitzean izandako sustoa ez zaie bada berehala pasako han galduta ibili ziren Arrasate eta Aramaioko lau gazteei. Ageri ez zirela-eta larrituta, familiek alarma eman zuten. Senideek, ertzainek eta espeleologoek osatutako talde batek topatu zituen, 21:00ak aldera.

Honela esan ziguten: "Sei bat orduan ibili ginen bueltaka, galduta. Bik pentsatu zuten lurjausiren bat gertatu zela, lokatza mordoa zegoelako alde guztietan, eta eskuekin kentzen ibili ginen. Pentsatu genuen, bai, gaua bertan pasa beharko genukeela, baina gu ondo geunden, eta kezka handiagoa geneukan kanpokoengatik, gurasoengatik-eta", esan zuen gazteetako batek. "Etxera iritsitakoan egin nuen lehenengo gauza dutxa beroa hartzea izan zen. Kiloka eta kiloka lokatza kendu nuen gainetik", dio. "Ikasi dugu. Ez gara espeleologoak, baina ez da kobazuloetara sartzen garen lehen aldia. Batzuk bazekiten bidea, espeleologia talde batekin bertan egonda zeudelako, eta hasierako zatia erraza da, baina kuriositatearekin barrurago sartu ginen, despistatu, eta galdu egin ginen", onartu du.

Bideak, itxita

Egubakoitzeko 11:00etan hasi zen guztia, San Valerio kobazulora sartu zirenean. Hau da gazteetako batek egiten duen kontakizuna: "Hasierako zatian bi galeria handi daude, baina gero miatzen ibili ginen eta hari bat aurkitu genuen. Bagenekien haria han zegoela, eta hura jarraitu genuen, barrura. Halako batean, baina, haria bukatu egin zen. Barruan milaka bide daude, pasillo mordoa, eta bat hartu genuen, baina galdu egin ginen. 15:00ak ziren. Sei bat orduan ibili ginen bueltaka, baina aurkitzen genituen bide guztiak itxita zeuden, buztinarekin, lokatzarekin... Eskuekin kentzen ibili ginen eta batzuk pentsatu zuten lurjausiren bat gertatu zela. Energiak eta argia aurrezteko (bost linterna genituen) txandaka ibili ginen, bi taldetan, bat itxaroten eta bestea irteeraren bila. Baina bide guztiak itxita zeuden. Halako batean bat aurreratu egin zen. Denbora asko eman zuen bueltatu barik, eta halako batean ahotsak entzun genituen. Bera zela pentsatu genuen, biderik aurkitu ez zuela-eta, bueltan zetorrela. Baina ez, erreskate taldekoak ziren. Eta handik atera gintuzten".

ZUZENKETA

Joan den eguazteneko GOIENA paperean, akatsa zegoen 8. orrian. Hain zuzen, Joan Antonio Meleri egindako elkarrizketan, honakoa esaten zen: Harreman bidezko merkataritza dendaren eskutik hitzaldia egingo zuela. Bada, hori ez da zehatza, hitzaldia erakunde gehiagok ere antolatu dutelako. Bost dira antolatzaileak: Harreman Denda, Mundukide Fundazioa, Oppen3, Economia Del Bien Comun eta Elkarhezitzen. Barkamena eskatzen dugu akats horregatik.

EHBilduko legebiltzarkide Rebeka Ubera eta Eva Alonso, Aramaioko mediku Aitor Montesen kontsultan. | MIREIA BIKUÑA

Aitor Montes: "Historia klinikoa euskaraz izateko eskubidea daukagu"

Aramaioko medikuak 'Osabide' euskaratzeko eskaera egin du

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Aitor Montes bizkaitarra Aramaioko medikua da, eta azken hilabeteotan erronka handia dauka esku artean: gaixoen historia klinikoa euskaratzeko eskaera egin du hainbat erakundetan; besteak beste, Aramaioko Udalean, eta Osakidetzan, Topagunean eta Kontseiluaren Behatokian. Alderdi politikoei ere helarazi die eskaera, eta horri erantzunez, EHBilduko bi legebiltzarkideren bisita izan du osasun etxean: Rebeka Ubera eta Eva Alonso. Egindako eskaera oso zehatza izan zen: "Lehen mailako arretan dihardugunok *Osabide* izeneko programa erabiltzen dugu, baina programa gaztelera hutsean dago. Euskarak ez dauka lekurik eta gaixoek ez daukate euren historia klinikoa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatuta".

Helburu hori lortzeko bidean hainbat pausu eman ditu, baina ez du erakunde askoren babesik jaso. "Batzuek esango dute hau langile baten eskakizuna baino ez dela, eta udalek, Aldundiak, Legebiltzarrak eta herritarrek ez daukatela zerikusirik. Nire ustez eskakizun hau haratago doa. Euskaldunok euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu. Osakidetzak ez du hori egiten, *Osabide* herritar guztien osasun arretaren adierazgarria da-eta".

Aitor Montes medikuaren esanetan, programa informatikoa itzuli besterik ez da egin behar. "Borondatea badago, erraz egin daiteke. Baina, borondaterik ez badago... Ea bada, guztion artean lortzen dugun".

Kezka, Legebiltzarrera

EHBilduko ordezkariak Aitor Montesek egindako eskaera Legebiltzarrera eramateko konpromisoa hartu zuten. "Garbi daukagu, euskarari dagokionean, utzikeria dagoela Osakidetzan. Gure lana da arlo horretako langileen kezkak behar diren lekura eramatea da. Hori horrela, Aitorren kezka Legebiltzarrean planteatuko dugu, eztabaida bultzatzeko asmoz", esan zigun Uberak.

ESANAK

"'Osabide' izeneko programa gaztelera hutsean dago"

AITOR MONTES | MEDIKUA

"Gaia Legebiltzarrean planteatuko dugu, eztabaida bultzatzeko"

REBEKA UBERA | EH BILDU

'Animo Aitto' pankartarekin herritar ugariren babesa, Plazaola presoari

Egubakoitz iluntzean Oñatin izan zen, amaren hileta elizkizunetan

M. B. / U.M. | OÑATI

18:35 aldera sartu zuten ertzainek Alberto Plazaola parrokiako sakristiara. Eta hilotza parrokiara sartu zutenean lehenengo jarlekura eraman zuten sakristiatik. Kanpoan herritar ugari elkartu zen, herrikideari babesa emateko. Ikurrinak, eta besteak beste, *Euskal presoak Euskal Herrira* zioten izarak eta *Animo Aitto* zioen pankartarekin animatu zuten Plazaola. Oñatiarren artean izan ziren Mikel Biain alkatea, Josu Lizarralde alkateordea eta Larraitz Ugarte diputatua

Hileta elizkizunen amaieran Plazaolak etxekoekin egoteko aukera izan zuen. Irteerarako, berriz, ertzainen bi furgoneta gerturatu zituzten parrokiara, eta poliziek hesi bat egin zuten herritarren eta furgoneten artean, Plazaola bertatik pasatzeko. Herritarrak oihuka hasi eta preso oñatiarra azaldu zenean txalotu egin zuten.

Alberto Plazaola polizia kotxera sartzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Plazaola eraman ostean, udaletxe aurrean elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek.

Parot doktrinarekin, 2026raino

Alberto Plazaola Anduaga 1990eko azaroan atxilotu zuten Frantzian. 1996an estraditatu zuten eta harrez gero hamaika espetxetan egon da. Egun Galizian dago. Legearen arabera 2016an aske egon beharko luke, baina maiatzean Parot doktrina aplikatu zioten eta 2026ra arte luzatu diote espetxealdia.

Antzuola-Bergara zatia, 2013ko aurrekontuetan

Foru Aldundiak aurrekontuaren %33,67 bideratu du Deskargako zatia egiteko

U. MADERA/M. BIKUÑA | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren departamentuak 2013an izango duen aurrekontua aurkeztu du: 117 milioi euro. Bada, aurrekontu horren %33,67, Antzuola-Bergara zatia egiteko bideratuko du: 40.038.272,84 eurotan lizitatu du errepide zati hori. 25 hilabetean bukatu beharko dituzte lanak. Laguntza teknikoa, berriz, 1.227.514,75 eurotan lizitatu du, eta 28 hilabeteko epea zehaztu du egiteko.

Ahalegin berezia

GI-632 errepideko Antzuola-Bergara tartea eraikitzeko esleipena egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Moyua eta Antzibar enpresen artean sortutako aldi baterako enpresak irabazi du lehiaketa. Laguntza teknikoa, berriz, Girder eta Saitec enpresen esku geratu da.

Hamaika enpresaren eskaintzen artean, Moyua Eraikuntzak SL eta Antzibar SAL enpresen aldi bateko batasunaren eskaintza iruditu zaio egokiena Diputazioari.

Gipuzkoako Diputazioak esan du ahalegin handia egin dutela errepide zati hori eraikitzeko, "izan ere, errepide hori amaitzea funtsezkoa da Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren egituratzeari begira".

DATUA

117

MILIOI

Hori da Aldundiaren Bide Azpiegituren Sailaren 2013ko aurrekontua.

ZABALIK

VALEN MOÑUX
http://goiena.net/iritzia/

Hau dek, hau dek ministroa

Irailean, nire lankideekin bazkaria izan nuen Getariako erretegi batean. Han geundela koadrila handi bat gure ondoko mahai baten jarri zen. Batzuk konturatu ginen Jose Ignacio Wert, Espainiako ministroa bertan zegoela. Aukera aproposa marmarrean egiteko. Werten emaztea bertan ezagutu nuen: Edurne Uriarte, bizkaitarra, *ABC,* Intereconomia, COPEko kolaboratzailea eta TVEko tertulianoa.

Bazkalosteko kantak botatzeko orduan ohiko "Anteron txaparrotia, Paisaren bibotia, haretxek ei dauka preso tximinoia" kantatu beharrean grazia egin zidan beste bertsioa kantatzeak: "Frankoren bibotia, haretxek ei dauka preso Euskal Herria". Gure errepertorioarekin jarraitu genuen eta ondoko koadrila joan zenean, Wert ministroa azkena gelditu eta emandako kontzertu inprobisatuagatik zoriondu gintuen. Mahaiko batzuk ia gin-tonika eztarritik ezin pasa gelditu ziren Espainiako ministroa aurrez aurre ikusterakoan.

"Wert-ek musika ikasgaiari garrantzi gutxiago eman nahi dio"

Wert benetan ospetsu bihurtu da "Ikasle kataluniarrak españolizatzea" esaterakoan baita gaizki onartutako neurri sorta baitu. Izatez, Rajoyren gutxien baloratutako ministroa da. Kultura eta Hezkuntza arloan Atilaren zaldi moduan sartzen ari da; ikusi besterik ez dago azken egunetako portadak. Guri zorionzean bere sentsibilitate musikal faltaren adierazle izan zen agian, baina hau benetan ikusten ari da bere Hezkuntza erreforman. Musika ikasgaiari garrantzi gutxiago eman nahi dio eta batxiler artistikoa ere kendu nahi du.

Kultura arloan, eta beste askotan ere, denboraldi txarrak bizitzen ari gara. Aipatutako kanta ondo transkribatzeko abesti sorta liburu bat kontsultatu dut. Bertan jartzen du *Anteron txamarrotia* (ez txaparrotia) kanta gerra aurrekoa dela eta benetan ezaguna egin zela 1936 eta hurrengo urteetan. Haiek ere ez ziren gureak baino denbora hobeak izango, baina ez ditzagun ahaztu bere hitzak: "Hau dek umoria kontsolatzeko euskaldun jendia".

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | mbikuna@goiena.com

Oñati–Arrasate: 50 minutu

Ez, ez da astakeria. Eta bai, eguneroko gurutze-bidea da. Santxolopeztegi eta Zubillaga arteko bidegorriaren lanak tarteko, semaforo bana jarri dute Madalena gasolindegi inguruan, bi noranzkoetan. Egunero egin behar dut Oñati eta Arrasate arteko bidea, eta berdin da zein ordutan hartzen dudan autoa. Torreauzoko bidegurutzearen parean nire izena duen irudizko plaza bat dago: beti leku berean egiten dut lehen geldialdia. Handik semaforoa dagoen lekuraino, lau edo bost geldialdi. Zoratzeko modukoa: 12 kilometro egiteko, 50 minutu, eta pazientzia handia. Bidegorria hasi da itxura hartzen, baina luzerako lanak diren itxura hartzen diet nik.

KALE INKESTA

Zer iruditzen zaizu Rajoiren gobernuak ezarri nahi duen hezkuntza lege berria?

ANGEL TERCERO DE NOVA
ARRASATE

"Gauzak dauden moduan utzi beharko lituzketela uste dut. Hezkuntza euren eremura eraman nahi dute".

KONTXI RUBIO
ARETXABALETA

"Ongi iruditzen zait guztiok erdaraz hitz egiten jakitea, baina ez horretarako euskara zapaltzea".

AITOR HERIZ
ARRASATE

"Oso eskasa iruditzen zait. Gainera orain hizkuntza dagoen egoeran, Frankismora itzultzea izango zen".

AIDE PARRA
ARRASATE

"Besteen iritzia errespetatu arren, niretzat onuragarria izango zen, semearen etxeko lanak ulertzeko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Hiesaz hitz egitea

Mikel Garcia Idiakez
http://argia.com/blogak/mikel-garcia/

Horren garrantzia azpimarratu zidan Udiarraga Garciak, Bilboko Itxarobide Elkarteko kide eta CESIDA Espainiako Estatuko Hiesaren Koordinakundeko presidenteak, hiesari buruz egindako erreportajean: Gaixotasunaz hitz egiteak, bistaratzeak, tabu izateari uzteak zenbateko mesedea egiten dion gaitzaren normalizazioari: "Politikariek kontu handia izaten dute gaia ez aipatzeko, hiesaz hitz egitea delako sexuaz hitz egitea, substantziekin dugun harremanaz, gizartean tabu diren gaiez. Jose Maria Aznarrek, adibidez, aginte osoan ez zuen 'hiesa' hitza erabili. Juan Jose Ibarretxe, ordea, oso irekia zen gai honetan, eta guretzat oso garrantzitsua da hitza bera esatea, gaia azaleratzea".

Gaiaz hitz egitea prebentzio modu eraginkorra da, azken finean, sexu harremanetan arduratsu jokatu behar dugula gogoan izateko. Izan ere, GIB birusaz kutsatutakoen kopuruak gora egin du azken urteotan. Gaitza dutenengandik hasten da normalizazioa, baina ez da erraza. Erreportajean ageri den Gorkak adibidez gertukoei baino ez die kontatu, horrek kontraesana sortzen dion arren: "Sarri pentsatu izan dut ni naizela gaitzaren normalizazioari hesia jartzen dion lehenengoa, ez dudalako publiko egin nahi, jakitun naiz, baina jendeak seropositiboez duen irudia ez da nik dudana, noizbait kontatu dudanean esan izan didate, 'hara, ba ez daukazu itxurarik'. Ezjakintasun handia dago oraindik, GIBdunen beldur da jendea".

Eta jendearen erreakzioaren beldur dira GIBdunak. "Gizarteak oraindik ez du onartua, hasieran oso talde zehatzetara mugatu zelako gaixotasuna: edo 'drogadiktoa' edo 'puta' edo 'marikoia' zinen, eta ni ez naiz hiruetako ezer, baina diskriminazioak iraun egiten du. Gainera, informaziorik ez duen jendeak oraindik ere, zoritxarrez, uste du muxu bidez, negar malkoekin... kutsatu daitekeela. Minbizia duzu eta jendeak esaten du 'gaixoa, minbizia egokitu zaio'. Aldiz, hiesa duzu eta esaten dute 'bere ekintzen ordaina da', baina ez da egia", dio Bakarnek.

Mespretxua barruan sumatzen duela aitortu du Katamotzek: "Egungo gizarteak ez du onartzen pertsona bat gaixo egotea, super-pertsonak baino ez ditu nahi, kexatuko ez direnak. Gure gaixotasuna nahiko kontrolatua dago egun, medikazioari esker, eta jendeak benda bat jartzen du begietan, estalita mantentzen du, baina inortxo ere ez dago kutsatzeko arriskutik salbu. Gizakiak gara eta edozein gaixotasun har dezakegu, horregatik garrantzitsua da jendea hiesaz informatzea".

Erreportajea ekainean argitaratu genuen *Argia*-n, gaur egun gaitza dutenek nola bizi duten jakin asmoz:

Hiesarekin bizitzea, eramangarri... ezkutua.

Kontsumismoa ahitzen

Bixente Serrano Izko
http://berria.info/blogak/bixente/

Sabelak beteak, buruak hutsik, tripaundi huts bihurtu.

Orain komeriak gureak: buruak eta sabelak hutsik, eta gerrikoak nola estutu ez jakin.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko ediozio arduraduna Ubane Madera
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai

Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina

Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrike Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herritxe Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel

Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane

Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrike Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herritxe Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar

Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria

Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena

2012an GOIENA KLUBeko bazkide zareten guztioi,

eskerrik asko!

Adi egon! Zure fideltasuna eskertzeko, abenduaren 17an,
Goiena telebistako Magazinea-n, 20:15ean, honakoa zozketatuko dugu:

Aisia Deba hotelean:

2 pertsonarentzako ostatua eta buffet-gosaria (2 gau) eta zirkuitu termala (2 bonu)
2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (2 bonu)
2 pertsonarentzako gosaria eta relax termala (2 bonu)

Zorte on!

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Sahar Vardi | Israeldar aktibista

"12 urte nituenean ikusi nuen argi ez nuela okupazioan parte hartuko"

- Sahar Vardik uko egin zion neska-mutilendako derrigorrezko zerbitzu militarra egiteari
- Militarizazioaren aurkako mugimendutan dago eta hitzaldiak egiten ditu mundu osoan

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Sahar Vardi (Jerusalem, Israel, 1990) ez da nolanahiko gazte israeldarra. 18 urte betetzen dutenean, Israelgo neska-mutilek zerbitzu militarra egin behar dute. Vardi intsumitu egin zen –han *refusenik* deitzen diete horrelakoei– eta kartzela eta ondorio sozialak izan ditu horregatik. Gaur egun, hainbat mugimendu zibilean dihardu. Oñatin hitzaldia egin zuen joan den astean.

Zergatik erabaki zenuen *refusenik* izatea?

Oso gazte nintzenean, 12 edo 13 urterekin, okupatutako lurraldeetara, herrixka batera joan nintzen. Ni Jerusalemen bizi nintzen eta lehenengo aldiz topatu nuen errealitatea aurrez aurre: herrixkako umeak ikusi nituen, herrixka inguratzen zuen hesia ikusi nuen, eta biztanleek kontrol-leku militar batera joan behar zuten goizero. Nire bizitza oso arrunta zen, Euskal Herriko edozeinena modukoa, eta etxetik 60 minutura, okupazio militarraren mendean bizi zen jendea neukan. Errealitate baten eta bestearen arteko amildegi horrek zur eta lur utzi ninduen, baina, aldi berean, oso garbi ikusi nuen ezin nuela armada horretan parte hartu, ezin nuela okupazio hura zabaltzen lagundu.

Zerbitzu militarra egiten duten guztiek armadan bukatzen dute?

Armada guztia da okupazioaren zati bat, lotuta daude. Ez dago alde handirik borrokarako soldadua izan edo ez, kontrol-lekuan egon edo ordenak ematen dituen ofizialarendako kafea prestatzen egon; mekanismo horretako zatia zara, berdin-berdin.

Ze ondorio izan dituzu refusenik bihurtzeagatik?

Bi hilabete eman nituen kartzelan, eta beste hiru, atxilotuta. Askatu nindutenean, ofizialki, burutik gaixo nengoen. Baina, kasu gehienetan, ondorioak sozialak dira: zerbitzu militarra egiten ez dutenak parasitotzat edo traidoretzat jotzen dituzte. Izan ere, Israelgo jendartea oso jendarte militarizatua da, eta zerbitzu militarra egitea edo armadako kide izatea jendarteari egiten zaion ekarpen onena dela uste dute, eta baita norbere eginbeharra ere.

Horregatik, enpresa gehienek nahiago izango dute zerbitzu militarra egin ez duen norbait ez enplegatzea. Ikasteko bekak lortzea ere zailagoa da. Inportantea da ere esatea israeldarren %20 palestinar israeldarrak direla, eta horiek ez dutela zerbitzu militarra egin behar eta ez dutela egiten, baina ondorio horiek eurek ere jasaten dituztela, nahiz eta armadak ez dituen pertsona horiek nahi.

Sahar Vardik 22 urte ditu, eta intsumitu izateagatik kartzelan izan zen. | TESS SCHEFLAN

Zelakoa izan da zure bizimodua hori eta gero?

Ez daukat kexatzeko arrazoirik: unibertsitatean ikasi dut, lana daukat eta moldatzen naiz. Dena dela, ezagutu berri dudan norbaitekin berba egiten duzunean, beti irteten den gaia da armadan zer egin duzun. Hori galdetzen didatenean, zerbitzu militarra ez dudala egin esaten diet, eta gai horri bueltaka gelditzen da elkarrizketa eta tonu politikoa hartzen du. Elkarrizketa hori izaten dudan bakoitzean, beste aldeak ondo ulertu beharra izaten du zergatik ez dudan zerbitzu militarra egin. Beste aldea hau da: okupazioaz eta palestinarrendako esan nahi duenaz hitz egiteko aukera izaten dudala.

Zenbat *refusenik* dago gaur egun Israelen?

Oso-oso zaila da datu zehatza jakitea. Urtero-urtero joaten dira banaka batzuk, bost eta hamar artean, kartzelara, eta publikoki protesta egiten dute hortik abiatuta. Baina, horretaz aparte, beste jende askok ez du zerbitzu militarra egiten baina beste modu batzuetara libratzen dira; esaterako, psikiatriko batera joaten dira edo zeharkako beste bide bat hartzen dute. Gaur egun, % 12 inguru joaten dira buruko gaixoen egoitza batera, baina denak ez daude gaixorik; ordea, oso bestelako arrazoiak dituzte zerbitzu militarra ez egiteko.

Nola eusten diozu orain zure jarrerari, *refusenik* izatera bultzatu zintuenari?

Aktibismoarekin jarraitzen du. Hainbat mugimendutan nago, palestinarrekin batera; besteak beste, okupazioaren aurkako agerraldiak egiten ditugu astero, palestinarrekin. Honakoa azpimarratzen saiatzen gara, batez ere: okupazioaren aurka ez daudela bakarrik palestinarrak, baita israeldarrok ere.

Horrez gain, judutar gizartearekin lan egiten dugu, eta armadatik irten nahi dutenak etortzen dira guregana, azalpen eske; horiei, nola irten azaltzen diegu. Urtero 2.000 bat laguni laguntzen diegu armadatik irteten.

Oro har, horrekin batera, judutarrak gogoetara bultzatzen ahalegintzen gara; hain zuzen, ea norberak armadara joan gura duen edo ez. Izan ere, inork ez digu galdera hori egiten.

Zure iritziz, zein izan daiteke Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren konponbidea?

Konponbide barietate ikaragarria dago: bi estatu, erdibideko estatu federala... eta beste asko. Baina, mugimendu zibil gisa, konponbidea bilatzea edo zelakoa izan behar duen esatea ez dagokigu guri. Gure lana hauxe da: konponbide bat nahi duela erabakitzera bultzatzea gobernua, agintariak horretara behartzea. Aukera mordoa dago mahai gainean; arazoa da agintariek, benetan, ez dutela haiei eutsi nahi. Horixe eragiten saiatu behar dugu.

Nola ikusten duzu palestinarren defentsa?

Bakezalea naiz eta biolentziaren aurka nago, orokorrean. Orain, kasu konkretu horretan, palestinar batzuek egiten duten ekintza biolentoa kritikatzea oso zaila da niretako, ez naizelako okupaziopean bizi. Dena dela, mugimendu hori ez da batere eragingarria, bereziki Israelek hain armada indartsua duenean. Mugimendu ez biolentoa, ordea, oso handia da gaur egun, eta mundu osoan iritzi publikoarengan oso eragin handia du. Adibidez, Nazio Batuetan, Alemaniak Palestina estatu behatzaile gisa onartzeko bozketan aurka ez bozkatu izana oso esanguratsua da, eta nazioartea Israelen alde lerrokatze horretan aldaketa handia dakar.

Hainbat herrialdetara joaten zara. Nola hartzen ditu jendeak zure hitzaldiak?

Jendeak elkartasun handia erakusten dit, eta Israelgo jendartearen gainean gehiago jakiteko grinarekin etortzen dira. Jakin eta ulertu gura dutena da nola izan daitekeen 18 urteko gaztetxo bat armadara joan eta armak erabiltzen hastea, eta okupazio mugimendu horren zati bihurtzea. Israelgo gizartea beldurrarekin oso lotuta dago, eta horrek egiten du jarduera militarra oso ospe handikoa izatea.

"Zerbitzu militarra egin ez dutenek zailagoa dute lana topatzea ere"

"Urtero, bost eta hamar lagun artean kartzelara doaz 'refusenik' direlako"

"Konponbide piloa daude, eta gure lana agintariak horietara behartzea da"

HERRIAK

ARRASATE

Arrasateko bideak hobetu guran, berezko aberastasuna gal ez dadin

- Bideak berreskuratzeak, herriko balio historikoa eta paisajistikoa azaleratzeko balio du
- Herriko eta inguruetako ondarea ezagutu, aisaldiarekin eta kirola egitearekin bat eginda

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Hiru urte igaro dira Besaide Mendi Elkarteak Arrasateko bide zaharren berreskuratze proiektua martxan jarri zuenetik. Hots, Arrasatek gordetzen duen ondare historiko zein paisajistikoa indarrean jartzea da asmoa, historikoki erabili izan diren herri bideak berreskuratuz. Finean, udalerriak gordetzen duen aberastasuna azaleratu eta herritarren esku jartzea da helburua.

Orain arte egin duten azterketetan, besteak beste, Gotzon Arzelusen 'Arrasateko baserri -auzoetako bideak' liburuaren bitartez lortu dituzte datu historiko asko.

Kurtzetxikira begira

"Arrasateko Udalak, 'Bide Publikoen Inbentarioa' izeneko proiektua du eskuartean, eta honek lagunduta, guk datorren urteko udaberrian martxan jartzea espero dugu" adierazi du Aitor Zubiagak, Besaideko ordezkariak. "Lan itzela egin dute Kurtzetxikin. Guk, lan hori baliatuz, eremua atondu eta ibilbidea lantzea nahiko genuke, jendeari ezagutzera emateko".

Bideak berreskuratzeak balio handia izan dezakeela argi dauka Zubiagak: "Alor historikoa zein zientifikoa modu interesgarrian landu ditzakegu, esaterako, Zientzia Elkarteak, Udalako Ingurugiro Eskolak eta Udaletxeak gurekin elkarlanean lan egiten baldin badute. Guzti hau herriko txiki eta gazteendako interesgarria dela uste dugu. Hau da, herriak duen balorea zein den jakin dezakete, eta aldi berean, kirola eta aisialdia uztartu".

Badago zer aurkitu

Herriko bideen azterketan zentratuko dira orain, baina, ahaztu gabe, inguruko auzo, mendi zein herrietarako loturak ahaztu gabe. "Gida liburu bat argitaratzea ere ideia ona izango litzateke. Askotan, ingurua dagoela badakigu, baina bidean zehar topa dezakegun informazioaren inguruko informaziorik ez dugu. Guk horretan lan egin nahi dugu, ikaragarria baita inguruak ezagutuz gero aurkitu daitekeen ondarea eta aberastasuna".

Besaideko mendi-irteera bateko argazki bat. | BESAIDE



Proiektuko 'bide-eraztuna' delakoa. | BESAIDE

Bide-eraztuna eta Arrasateri bira

Bideak fisikoki atontzeko eta egokitzeko egitasmoak, gaur egun jada homologatuak dauden bideetan du abiapuntua. "Bide-eraztunaren kasuan, zati handi bat aurreratuta dago, GR121. Kanpanzar-Udala zatia, Bizkaitik egiten zena, Gipuzkoa aldetik igarotzea erabaki du azken urteetan Gipuzkoako Mendizale Federazioak. Hau da, Udalaitzeko gure aldetik".

Antolatutako irteera bateko irudia. | BESAIDE

Udalatx kuttuna ahaztu barik

Aitor Zubiagaren esanetan, "gure mendi kuttuna hor dugu baina ez diogu jaramonik egiten. Mendizaleak gara, mendira goaz, baina askotan ez dugu ikusten bideak eman dezakeen guztia. Forma bat eman nahi diegu, zentzu bat, alegia". Horretarako, eremu konkretu horren balio historikoa eta balio naturala aztertu eta azaldu nahi dute.

BERGARA

Neska-mutikoek jantziko dituzte Bergarako txokoak Gabonetarako

Pare bat asteburutan apaingarriak egiten ibili dira, Jardun Euskara Elkartearekin batera

Neska-mutikoak Gabonetako apaingarriak egiten, Munibe plazan, egubakoitz iluntzean. | U.M.

UBANE MADERA | ARRASATE

Aurten, Gabonetako apaingarri bereziak ikusiko ditugu Bergarako kaleetan: herriko neska-mutikoek egindakoak. Bereziak dira gainera, arrazoi bikoitzarengatik: eskuz egindakoak izateaz aparte, birziklatutako materialarekin egindakoak ere badirelako: plastikozko botilekin egindako izarrak, CD distiratsuekin egindakoak, kafe makinetako edalontzitxoz osatutako bola erraldoiak, eskuz margotutako kanpaiak... Jardun elkartekoek modeloak jarri, eta oinarri hartuta umeak buru-belarri ibili dira apaingarriok egiten asteburuan Munibe plazan: "Jendeak eramandako materialarekin egindakoak dira. Asko eraman dute, batez ere CDak. Bota beharrean aprobetxatu egingo ditugu. Eta emaitza ona dabil izaten", kontatu du Yasmina Morenok, Jardun elkarteko begiraleak.

Eraikin publikoetan

Bada lan horren emaitza oraingo astean hasiko dira ipintzen Bergarako bazterretan. Besteak beste, Boni Laskurain eta Domingo Irala kaleetan, eta eraikin publikoetan, udaletxean, kultura etxean eta Irizar jauregian, adibidez.

MAREN BELASTEGI
GAZTERIA ZINEGOTZIA

"Guretako inportantea zen denon artean apaintzea herria, birziklapena bultzatzen. Aurrekoan jende piloa elkartu zen, eta gaurkoan ere dezente elkartu da; beraz, nahiko nieke guztiei eskerrak ematea".

ABINET CASQUERO
PARTE-HARTZAILEA

"Polita da, azkenean ondo geratzen da. Gainera, guk egindakoa herrian ikusten badugu... pozik, ze beste urte batzuetan Udalarenak ipintzen dituzte. Era berean, umeak disfrutatu egiten dute".

PELLO GALLASTEGI
PARTE-HARTZAILEA

"CDekin izarra egin dut; apur bat kostatu zait, baina gustura geratu naiz emaitzarekin. Gainera, ilusioa egingo dit guk egindakoa kalean ikusteak, eta ideia hartu eta etxerako ere egingo dut zerbait".

IZAR MUÑOZ
PARTE-HARTZAILEA

"Bergarako kalean ipini behar dituzte guk egindako apaingarriak, eta horrek ilusioa egiten dit; etxean ere egingo ditut halakoak, gainera ondo pentsatzen zait erabilitako gauzak aprobetxatzea".

IZAR CURADO
PARTE-HARTZAILEA

"Gabonetan ipintzeko izar bat marraztu dut. Gustatuko zait gero ikustea herrian nik egindako lana zintzilik. Originala da guk egitea. Lagunekin batera etorri naiz hona, eta oso gustura nabil".

BERGARA

Egurrean egindako artelanak ikusgai izan dira, Aroztegi aretoan

U.M. | BERGARA

Pasa berri den zubian, bergararrek eta Bergaran izan diren bisitariek egurrean landutako 50 bat lan, edo hobe esanda, artelan ikusteko aukera izan dute Aroztegi aretoan, zein baino zein ederragoak: familia armarri edo heraldikak, ordulariak, kutxak, bastoiak, erliebean egindako koadroak... Hain justu, Bergarako Taila Eskolako 26 kideren lanak izan dira ikusgai erdiguneko aretoan.

Egurrezko lanokin batera, lan horiek egiteko erabiltzen dituzten erremintak ere izan dira kuriosoen bistarako. Eta modu nabarmenago batean, taila eskolako kide esanguratsua izan den Celestino Vicenteren lanak erakutsi dituzte.

Zeramika eta margolanak

Behin Taila Eskolakoen erakusketa bukatuta, Bergarako bestelako artista batzuen txanda izango da datozen asteotan.

Hain zuzen ere, abenduaren 14tik 23ra Buztinzale Zeramika Elkartekoek erakutsiko dituzte euren dohainak, landu dituzten lanen bitartez.

Eta urte amaierarako eta berriaren hasierarako, Beart elkarteko margolariek "hartuko" dute Aroztegi.

Bisitariak erakusketa ikusten. | JAGOBA DOMINGO

Celestino Vicenteren *Gernika*. | U.M.



Zaldiaren irudia, Jesus Otañorena. | J.D.

Manolo Lorentek harria ere erabili du. | U.M.



Asensio Esnaolak erliebeak landu ditu. | U.M.

ARRASATE

San Nikolasen omenezko boloak, erdigunean eta auzoetan

Auzoetan "pozik" zeuden, lehen urtea izanda, lortutako erantzunarekin

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Tradizioari jarraituz, Arrasateko neska-mutikoek ez zuten hutsik egin abenduaren 6ko bolora. San Nikolasen omenezko ekitaldia jendetsua eta lasaia izan zen. *San Nikolas, triskilistras...lukainka, txorizo...* kantua bukatzean hasi zuten boloa Arrasateko Herriko Plazan eta hainbat auzotan.

Arrasateko umeak, gozokien zain. | JAGOBA DOMINGO

Arrasateko Herriko plaza lepo bete zen boloa ikusteko. | JAGOBA DOMINGO

Auzoetan ere bai

Ekitaldi jendetsuena Herriko Plazan egindakoa izan zen. Bi gune egokitu zituzten: 5 urte artekoak plazan dagoen oholtzara begira ipini zituzten, eta zaharragoak udaletxeko balkoira begira. Bi lekuetan udal ordezkariak egon ziren gozokiak botatzen. Gurasoak hesien atzean kokatu dituzte.

Aurten, lehen aldiz, herriko hainbat auzotan boloak egin zituzten; besteak beste, Erguin, San Andres eta Musakolan. Leku horietako boloak ez ziren horren jendetsuak izan, baina umeak pozik zeuden. "Hemen, Herriko Plazan baino gozoki gehiago hartu ditugu". Antolatzaileek ere balorazio positiboa egin zuten.

Erguingo umeak, poltsak bete ondoren. | UBANE MADERA

San Andres auzoan ere boloa egin zuten. | TXATXILIPURDI

JOSTAILU BILKETA SOLIDARIOA

Olentzerok zakua zimurturik dakar ez baitu ezer jaso bideetan zehar, guri laguntza eske dator bidenabar eta ez al diogu zerbait eman behar?

Ikazkinari zaio nekea nabari begirune apur bat zor diogu hari, eska diezaiogun atariz atari barruan daramagun esku zabalari.

Neska-mutilok jarri gara akorduan opari zaharrak bilduz etxe inguruan. Zuretzat, Olentzero, eraman orduan: guk ez ditugu behar, banatu munduan!

ABENDUAREN 15ean, Bergarako San Martin plazan (goizez)

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

Buruko gaitza duten delitugileendako unitatea

Aita Mennin egokitzen dihardute, otsaila-martxorako gura dute gertu izatea

UBANE MADERA | ARRASATE

"Psikiatria Legala izena duen unitate berezia eraikitzen gabiltza. Gure ideia da orain bost gela egokitzea, baina 10 gelaraino handitzeko aukerarekin", kontatu du Sor Rosa Abadek, Aita Menni ospitaleko gerente eta erizain psikiatrikoak.

2013ko otsaila-martxorako abiaraziko dute unitate berria, obrak eta bestelakoak bukatu ostean, "ze ikuskaritza zehatza eskatzen duen unitatea da, bereziki, lege aldetik", gaineratu du Abadek.

"Ez da kartzela izango"

Izan ere, buruko gaitza duten delitugileei tratamendua emateko unitatea da Aita Menni ospitalean eraikitzen dabiltzana. "Baina ez da kartzela izango, ezta gutxiago ere. Buruko gaixoendako unitatea izango da, kartzela kontuak bigarren mailan geratzen dira. Azken batean, gaixo horiek egin duten delitua buruko gaitza izatearen ondorioa besterik ez da, eta gaixo horiendako leku egokia ez da kartzela. Unitate hau gaixoekiko errespetuan oinarritutakoa izango da, haiei behar duten tratamendu egokia emateko helburuarekin", azpimarratu du Sor Rosa Abadek.

Dagoen behar bati erantzuna

Unitate berezia izateaz gainera, bakarra eta aitzindaria ere bada Aita Mennin eraikitzen dihardutena, Estatuan ez dago-eta halakorik. Izan ere, aspaldi garatzen hasitako ideia da: "Genevako eta Ingalaterrako esperientziak bisitatzen izan ginen orain 10 bat urte, Euskal Herrian behar hori dagoela ikusten genuelako. Pentsa ze abantaila izango den Euskal Herritik kanpoko kartzelatan dauden gaixo euskaldunendako etxetik gertu halako zerbait izatea", adierazi du ospitaleko gerenteak. Unitateak izaera soziala izango duela ere azpimarratu gura izan du hark.

Psikiatrian eskarmentudunak

Psikiatria Legalaren unitatea emakume zein gizonendakoa izango da, eta bertan jarduteko lantalde berezia sortuko dute, "psikiatrian eskarmentua duten profesionalak".

Aita Menni ospitalearen kanpoko aldea, Gesalibar auzoan. | KEPA MARTELO

Txatxilipurdiko eta Artemaneko kideak, Cascon eta Ilarduiarekin. | J.B.

Euskara transmititu dutenei egindako aitortza

'Hesiak gainditzen' dokumentala aurkeztu du Txatxilipurdi elkarteak, Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskaldun izan barik frankismoan gurera etorri zirenek hurrengo belaunaldiei euskara transmititzeko egin duten lana goraipatzen duen ikus-entzunezkoa landu eta aurkeztu du Txatxilipurdi elkarteak: *Hesiak gainditzen*. Arrasateko Udalak diruz lagundutako lana da eta Arteman komunikazio enpresak egin du.

Beti ere Arrasate kokaleku dela, hainbat testigantza jasotzen ditu dokumentalak. Protagonista horietako bi izan dira gaur aurkezpenean: Josu Cascon eta Karmele Ilarduia. Biek Txatxilipurdiren oroigarria jaso dute (argazkian).

Zabalkundearekin hastear

Behin aurkezpena eginda, Txatxilipurdik espero du ikus-entzunezkoak ahalik eta hartzaile gehien izatea. Horretarako laster hasiko dute zabalkundea; Interneten zintzilikatuko dute eta bailarako beste herri batzuetan ere aurkezteko asmoa agertu dute: "Gertu gaude deitzen gaituzten tokietara joan eta bertan dokumentala aurkezteko", adierazi digu Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendariak.

Arizmendiko gazteak, euskararen alde. | ARIZMENDI

Gazteek ere euskaraz bizi nahi dutelako

Arizmendi Ikastolako 58 ikaslek euskararen aldeko manifestua sinatu eta bultzatu dute

U.M. | ARRASATE

"Gazteok euskaraz bizi nahi dugu eta ez batzuetan edo batzuekin, uneoro eta edonorekin baizik. Euskaraz haserretu nahi dugu, euskaraz algara egin, euskaraz zirriak egin, euskaraz mozkortu, abestu, amestu, gaiztoak izan, oroitu, jolastu, erori, altxatu, dantzatu, mintzatu, maitatu".

Arizmendi Ikastolako Bazara batzordeko kideek euskararekin duten konpromiso eta nahien adierazle da Euskararen Egunaren harira sinatu eta bultzatu duten manifestua. Ikastolako 58 ikaslek sinatu dute eta euskarari "behingoz protagonista papera" eman gura diote.

Jarrera aldaketa

Izan ere, "aspaldiko pelikuletan moduan" ikusten dute euskara sarri Arizmendikoek, "mutu askotan eta txuri-beltzean behar baino gehiagotan". Hori horrela, besteak beste, ikaskideen "jarrera aldaketa" ezinbesteko ikusten dute euskara "kolore biziz bizitzen hasteko".

Arrasate Musikalekoak Gabonetarako motorrak berotzen

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Gabonen bueltan eskaintzen dituzten ohiko kontzertuen harira, abenduaren 15, 20 eta 31rako egitaraua prestatu du Arrasate Musikalek.

Abenduaren 15ekoa

Hilaren 15ean izango da aurreneko hitzordua, San Frantzisko elizan. Txistulariak Goikobalu abesbatzarekin batera 20:00etan zenbait pieza eskainiko dituzte. Banda Gazteak eta Goikobalu Txiki eta Gaztek Pepe Iantziren *Otsango*, Anne Miren de Kruzlegiren *Gora Ikastolak*, Luis Aranbururen *Belenen Jaio da* eta Aita Hilario Olazaranen *Mendigoizaleak* interpretatuko dituzte.

Jarraian, nagusiek *Gabonetako Sonatatxoa, El Banco de Mendiguren, Ai Hau Gauaren Zoragarria, Bigarren Kalez Kale, Mesias Sarritan, Gabiltzan Klaez -kale, Gurea Da!* eta *Olentzero* interpretatuko dituzte.

Abenduaren 20ko eta 31

Abenduaren 20an 18:30ean da hitzordua Kulturaten, eta Arrasate Musikaleko ikasleak izango dira protagonista.

Eta abenduaren 31n,berriz, Amaia antzokian Arrasate Musikaleko bandak Gabon Zaharreko urteroko kontzertua eskainiko du, 13:00etan hasita.

Eusko Alkartasunaren hiri batzarra izango da, bihar, martitzena

Alkartetxean, 19:00etan da hitzordua. Bestalde, Gabonetako egitarauaren berri eman dute: Santamasetan, txistorra emango dute, Alkartetxean. Eguberri egunean, Olentzero 17:00etan agertu eta opariak banatuko ditu bertan, eta gero txokolatea jan ahalko da.

Eguenean, abenduaren 13an egingo dute lehen Korrika batzordea

18.30ean AEDren egoitzan da hitzordua: "Konpromisorik gabe etor zaitezen eskatzen dizugu. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta, aukerarik izango ez bazenu ere, Korrika geure herrian izango dela ezagut eta zabal dezazun da gure nahia".

Miguel de Madinabeitiaren gaineko hitzaldia, bihar

Arrasate Zientzia elkartearen *Arrasateko iragana astintzen* zikloaren laugarren hitzaldia bihar, martitzena da (19:00). Jose Mari Velez de Mendizabal izango da hizlari; Miguel de Madinabeitia historialariaren gainean egingo du berba, Kulturateko areto nagusian.

EAJri, "harrokeria hutsa eta probokazioa" iruditu zaio alkatearen jarrera

A.B. | BERGARA

Bergarako alkate Jesus Elortzak Oñatiko eta Gatzagako alkateekin pasa den martitzenean atez atekoaren gainean egindako agerraldia gogor kritikatu du Bergarako EAJko Udal Taldeak.

Jeltzaleei, "harrokeria hutsa eta probokazioa" iruditzen zaie alkatearen jarrera. EAJk atez atekoaren inguruko osoko bilkura monografikoa eskatu zuen azaroaren 21ean, eta azken osoko bilkuran –azaroak 26– alkateak eskatu zuen eskaera atzerako. "EAJk erantzun zion erabakiak hartzen hasiak direla Debagoieneko Mankomunitatean, pleguak argitaratzen -eta; Udalean ere zenbait erabaki hartzen hasiak direla eta informazioa lehenbailehen nahi genuela jaso", adierazi dute EAJko ordezkariek prentsa ohar baten.

Jeltzaleek gogor kritikatu dute osoko bilkuran alkateak "datu gutxi zituela esan eta astebetera" prentsaurrekoa eskaintzea eta bertan esatea Bergaran eta Oñatin apirilean ezarriko dela atez atekoa. "Jesus Elortza alkateari ez zaizkio axola ez herritarren 4.700 sinadurak, ez udaletxean eman behar diren azalpenak eta eztabaidak", diote.

Bilkurara joateko deialdia

EAJko ordezkariek dei egin diete atez atekoaren aurka dauden bergarar guztiei astelehenean egingo den osoko bilkura monografikoan parte hartzeko; 19:30ean izango da.

Aurten ere ikastetxeak elkarrekin Gabonetan

A.B. | BERGARA

Herriko hiru ikastetxeetako haur eta gurasoak aurten ere elkarrekin irtengo dira kantuan egitera abenduaren 24an. Ikastetxe bakoitzak, lehenengo, ibilbide txiki bat egingo du bakarrik, eta ondoren, 11:30ean, frontoian elkartuko dira. Bertan, Olentzero eta Maridomingi izango dituzte zain, eta haiekin elkartu ostean kalejira hasiko dute hiru ikastetxeetako neska -mutikoek –Ibargarai, Herri Lagunak, Irala, Irizar, Barrenkale eta San Martin plaza–. Ibilbidearen bukaeran, San Martin plazan, hiru abesti kantatuko dituzte elkarrekin, eta ondoren, Olentzerori eta Maridomingiri agur esango diete umetxoek.

Ikastetxeka banatuta

Pasa den urtean hiru ikastetxeetako neska-mutikoak adinaren arabera banatu ziren. Bada, aurten, eta antolakuntza errazagoa izan dadin, ikastetxeak blokean joango dira. Hau da, ikastetxe bereko neska-mutiko guztiek elkarren ondoan egingo dute kalejira.

Ekintza ugari Gabonetan

Bergarako txikitxoek ez dute aspertzeko denborarik izango Gabonetan. Abenduaren 26an ludoteka Munibe plazako karpara irtengo da, 11:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean, berriz, umeek eta gurasoek elkarrekin jolas egiteko aukera izango dute Zabalotegin.

Horrez gain, ur jolasak egongo dira Agorrosinen abenduaren 27an eta urtarrilaren 2an, eta Zabalotegi aretoan ere egongo da zer ikusi: *Lorategian* antzezlana abenduaren 27an eta *Batuta* txotxongiloen emanaldia abenduaren 28an. Urtarrilaren 3an eta 4an, jolas parkea egongo da Udal Pilotalekuan.

Gaztelekuan ere ekintza ugari egongo dira Gabonetan: karaokea, lip duba eta makillaje ikastaroa, besteak beste.

Aranzadi Ikastolako neska-mutikoak kantuan. | ARANZADI IKASTOLA

Aitziber Plazaola | Harrera Elkarteko kidea

"Denbora luzez urrun egon ostean, gizarteratzea ez da erraza"

- Preso eta iheslariei gizarteratzen laguntzeko Harrera Elkartea sortu da
- Bergaran ere taldea osatu dute eta aurkezpena hilaren 12an egingo dute

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Harrera Elkartearen aurkezpena egingo dute eguaztenean, hilaren 12an, Irizar jauregian.

Zein izango da Harrera Elkartearen egiteko nagusia?

Gatazka politikoaren ondorio garen preso eta iheslari ohiei, duintasunez bizitzeko laguntza eskaintzea. Horretarako, elkartasuna izango da tresna nagusia.

Zer gabezia ikusten dituzue zentzu horretan?

Etxetik, herritik, lagunengandik, lanetik... urrun denbora luzea eman ondoren, jendarteratzeko ariketa egitea ez da askotan uste bezain erraza izaten. Herria aldatu egin da, baita norbera ere, eta honek, askotan, prozesu luzea eskatzen du. Preso eta iheslari ohi askok laguntza psikologikoaren beharra, lana topatzeko zailtasunak –ikasi arren, esperientzia falta izaten dugulako–, osasun arazoak –espetxeko bizimodua eta bertan dagoen asistentzia eskasa delako– eta beste hainbat arazori egin behar izaten diegu aurre.

Uste duzue gizartea kontziente dela gabezia horietaz?

Jendarteak, orokorrean, preso eta iheslarien egoera edo errealitatea ezagutzen duela uste dut, eta baita honek Euskal Herrian dakarren arazoa ere. Baina, zentzu horretan, etxeratzea dugunez helburu nagusi, ondoren, preso edo iheslari ohiei bizitakoak sortu digun lotura falta gainditzeko borroka abiarazten zaigula ahaztu egiten dela uste dut, askotan.

Harrera Elkartea mugimendu irekia dela diozue?

Preso eta iheslari ohiek hartu dugu behar honi erantzuteko lehenengo erantzukizuna, guk geuk, ohiak jendarteratzea guztion eginkizuna da, betiko gatazka gainditu nahi badugu, behintzat.

Aitziber Plazaola. | GOIENA

> **"Herriz herri ekarpena egingo duten herritarrak saretzea da asmoa"**

egoera bera pairatu dugulako, eta honek errealitate horretatik gertuago mantentzen gaituelako. Baina helburua herriz herri ekarpena egingo duten herritarrak saretzen joatea da. Gatazka politiko baten ondorio garen preso eta iheslari

Nolakoa izango da eguazteneko ekitaldia?

Nazio mailako elkartea izanik, bertan lanean ari diren bi kide etorriko dira elkartearen nondik norakoak azaltzera. Bertan egongo gara Bergarako Harrera taldeko kideak herritarren zalantza, ekarpen edo dena delakoak jasotzeko. Aurkezpenaren ondoren, luncha egingo dugu Artatse elkartean. Herritar guztiak gonbidatuta zaudete.

Euskarazko produktuen katalogoa gertu

A.B. | BERGARA

Azken urteetan egin den moduan, euskarazko produktuen katalogoa argitaratu du Bergarako Udalak, beste hainbat udalekin batera, eta, aurten ere, Bergarako ikastetxeetan banatu da. Dena den, eskolatik jasotzen ez dutenek udaletxean edota Kultur Etxean ere izango dute eskuragarri.

Katalogoan ageri diren produktu horiek guztiak jada merkatuan daude salgai, eta interesatuak bere ohiko saltoki edo liburu-dendetan eskuratu ahal izango ditu.



JULIO BIKUÑA

Ia bi kiloko onddoa batu zuen

Julio Bikuña bergararrak 1,680 kilo dituen onddo zuria batu zuen zapatuan Landa inguruan. Pinu artean "gordeta" zegoela azaldu digu, eta inoiz hartu duen handiena dela: "Kilo bat ingurukoak hartu izan ditut, baina hain handiak ez", kontatu digu. "Aurten onddo asko hartu ditut; berandu hasi dira, baina egon dira", dio.

Adierazpen libreko 12 gune jarri ditu Udalak

Panel berriak erabiltzera animatzen ditu Udalak ekintza ezberdinak antolatzen dituzten guztiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kartelak jartzeko adierazpen libreko 12 gune jarri ditu Udalak herriko hainbat gunetan, erdiguneko kaleetan eta San Lorentzo eta Olakua auzoetan, zehazki. Kartelak jartzeko lehendik zeuden panelak aldatu egin dituzte toki batzuetan, eta beste zenbait lekutan berriak jarri dituzte.

Erdigunean eta auzoetan

Panel berriak non jarri erabakitzeko orduan, lehendik zeudenak kontuan hartu dituzte. Horrez gain, baina, herritarrek kartelak non itsasten zuten ere hartu dute kontuan. Ondorioz, lehendik zeuden bost panelak aldatu egingo dituzte eta beste zazpi berri jarriko dituzte. Kale Zaharrean, Ibarrondon eta Kirrineko kantoietan zeuden panelak, adibidez, aldatu egin dituzte, eta berriak jarri dituzte Foruen plaza inguruan, Irizar loteria administrazioaren ondoan eta Sabadell-Guipuzcoano banketxearen ondoan; Zubikoa kiroldegian, Santa Marina plazan dagoen Elkar Hezi ikastetxean, Lazarraga kaleko parkearen ondoan, San Lorentzo auzoan eta Olakuan, hango Super BM dendaren ondoan, zehazki.

Garbitzeko errazak

Panelak erraz garbi daitekeen materialarekin daude eginda. Orain arte erabili diren egur edo okumezko panelak baino errazago garbituko dira, horrela, berriak. Udaleko Zerbitzuen Departamentua arduratuko da panelak aldiro-aldiro garbitu eta mantentze egokia egiteaz.

Oraingoz, 12 gune jarri dituzte kartelak jartzeko, baina datorren urtean beste horrenbeste edo gehiago jartzea ez du baztertzen Udalak, beharrezkoa izanez gero. Horrela, adierazpen libreko gune horiek erabiltzera animatu gura ditu Udalak herritarrak eta, oro har, ekintza ezberdinak antolatu eta horren berri emateko kartelak jartzen dituzten guztiak. Udalak zentzu horretan zorrotz jokatuko duela aurreratu dute udal teknikariek, eta paneletatik kanpo paretetan itsatsitako kartelak kendu egingo dituztela gaineratu.

Herriko plazako izkina baten dago paneletako bat, loteria administrazioaren ondoan. | O.E.

Natur artelanak egiten dihardute herriko ikastetxeetako ikasleek

Garaion taldeko lagunekin batera 'Auzolanartean' izeneko ekintzak ari dira egiten herrian zehar

O.E. | OÑATI

Garaion taldeko kideekin batera gazteekin auzolan natur artistikoak egiten dihardute herriko ikastetxeetako batxilergo mailako ikasleek. Elkarlanean, auzolanean, natur baliabideekin artelanak egitea da helburua.

Makilak eta hostoak

Joan den egubakoitzean, esaterako, Zuazola Larrañako ikasleek hartu zuten parte ekimenean. Antixena parkean egin zuten natur artelana. "*Antixena* izenaren lehen zatiak *–ant–inurri* esan gura du ingelesez, eta, hori oinarri hartuta, inurritegi bat eta inurriak egin ditugu. Horretarako, makilatxoak eta hostoak erabili ditugu, besteak beste", kontatu du Olatz Kortabarria ikasleak. "Lana Antixenan egitea erabaki dugu, jendea gaztetxera erakarri gura dugulako. Elkarlana bultzatuz, gaztetxera etortzeko lotsarik ez izateko mezua zabaldu gura dugu", gaineratu du Iker Azurmendi gazteak.

Gaur, Lazarragako lorategian

Gaur eta bihar, Txantxiku Ikastolako ikasleek egingo dute euren artelana, plazako kioskoan, Lazarragako parkean eta Antixenan. Egubakoitzean, berriz, Elkar Hezikoen txanda izango da. Santa Marina plazan jardungo dute eurek, goizetik eguerdira bitartean.

Zuazola Larrañako ikasleen txanda egubakoitzean izan zen. | JAGOBA DOMINGO

Martuteneko presoendako materiala batuko dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Martuteneko presoei emateko materiala batuko du aste honetan Oñatiko espetxeratuekiko pastoralak. Gaurtik, astelehena, egubakoitzera arte jasoko dute materiala.

Materiala

Martuteneko presoendako jaso gura duten materialaren artean daude: gizon zein emakumeendako barruko arropa berriak, galtzerdiak, pinik gabeko telefono txartelak, tabako gorria eta metxeroak, hortzetako pasta eta eskuilak, gutun-azalak eta seiluak, bainatzeko xaboiak, desodorante-barrak, azazkalak moztekoak, pilak, turroi biguna eta bainatzeko txankletak (41-44 neurrikoak). Materialaren ordez dirua eman gura izanez gero, hartuko dute pastoraleko kideek.

Astelehenetik egubakoitzera arte hainbat lekutan jasoko dute materiala: Garoa aretoan 18:00etatik 20:00etara arte –Espetxe Pastoraltzako kideak egongo dira–, eta herriko denda hauetan ere bai, zabalik dauden ordutegi barruan: Hirukar, Sillero eta Irizar.

Oñatiko espetxeratuekiko pastoraleko kideek aurrez eskertu gura diete herritarrei euren borondatea, bizi dugun egoera erraza ez dela kontuan hartuta.

Txantxikuen txotxongilo erakusketa kultura etxean

O.E. | OÑATI

Igelen itxuraldaketa izeneko erakusketa zabalduko dute bihar, martitzena, kultura etxean. Corrado Masacci italiarrak ekarriko du erakusketa, eta txantxiku itxurako txotxongiloak jarriko ditu ikusgai kultura etxeko erakusketa gelan. Txantxikuen mundua nolakoa izan daitekeen erakutsiko du erakusketa didaktiko horrek.

Urtarrilaren 7ra arte

Erakusketa bihar, martitzena, zabalduko dute eta urtarrilaren 7ra arte egongo da zabalik. Egunero egongo da ikusteko aukera, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxeko erakusketa gelan. Itxita egongo diren egunak: abenduak 24, 25 eta 31 eta urtarrilak 1, 5, eta 6.

Txotxongiloa. | OÑATIKO UDALA

Euskal Selekzioa ikustera joateko autobusa, gaztelekuak

Euskal Selekzioak Boliviakoaren aurka jokatuko du abenduaren 29an Anoetan. Gaztelekuko Topalekuak autobusa antolatu du partidua ikustera joateko, eta izena eman behar da aurretik. Irteera doan izango da, eta izen -ematea zabalik dago. Joan gura duenak abenduaren 14a baino lehenago apuntatu behar du gaztelekuan.

Gospel kontzerturako sarrera gutxi gelditzen dira salgai

Divine Gospel Reunion taldeak gospel kontzertua egingo du egubakoitzean, hilak 14, Santa Anan. Eta harrera ona izan du. Izan ere, dagoeneko sarrera asko saldu dira Internet bidez, nahiz eta oraindik batzuk gelditzen diren. Sarrerak 10 eurotan daude salgai *www.barrabarra.eu* webgunean. Eta leihatilan bertan ere egongo dira.

Mirentxinek txartelak salduko ditu, bidaien gastuak ordaintzeko

Mirentxineko kideek txartelak eta egutegiak atera dituzte. Jasotako dirua izango da Euskal Herritik urruti dauden espetxeetan dauden euskal presoak bisitatzera joateko egiten dituzten bidaiek duten gastua ordaintzeko. Txartelek zenbakia izango dute, furgoneta baten zozketan parte hartzeko.

ARETXABALETA

Gipuzkoa plazako jolas parkea berritzen hasi ziren joan den astean

Espero dute lanok abenduan amaitzea; hala ere, eguraldiaren menpe daude

AMAIA TXINTXURRETA | ARETXABALETA

Gipuzkoako plazako jolas parkea berritu egingo dute. Bi zona bereiziko dira: bata 0 eta 8 urte bitarteko umeei egokitutakoa izango da; eta bestea 3 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta egongo da.

Haur txikienentzako zonan jarriko dituzten elementuak hauek dira: saskia izango duten kulunkak eta bi txirrista izango dituen egitura txiki bat.

Handien gunean, berriz, elementu hauek jarriko dituzte: kulunka normalak; *habia* izenez ezagutzen den kulunka handi bat jende askok bertan batera jolas egiteko; *faro* izena jarri dioten estruktura handi bat ere izango da eta bertan eskalatzeko sarea egongo da, baita suhiltzaileek izaten duten moduko barra bat, gaztetxoak bertatik jaisteko, eta txirrista erabilera izango duten bi hodi handi ere izango ditu.

Irudiko itxura hartuko du Gipuzkoa plazak. | YOR ENPRESA

Lanokin joan den astelehenean hasi ziren. Plazako ingurua barandatu eta aurretik zeuden jolasak kentzen hasi ziren, eta ondoren etorriko da kulunka eta jolaserako elementu berrien muntaia. Aurretik, baina, lurra berrituko dute. Umeen parkeetan ikusi ohi dugun kautxuzko seguritatezko lurra edo lur biguna jarriko dute plazan. Jolasen altueren arabera, gainera, lurra sendoagoa edo finagoa izango da ume eta gaztetxoen segurtasuna bermatzeko.

Lan horiek egiteko, baina, eguraldiaren menpe egongo dira langileak. Izan ere, komeni da lanok egiteko euririk ez egitea. Eta abendu amaierarako lanak bukatuta egotea espero duten arren, Saioa Llodio Hirigintza teknikariak azaldu digu eguraldiaren arabera lanok lehenago edo beranduago bukatuko dituztela.

Gipuzkoa plazako jolas parkea berritzeko 66.606,27 euroko aurrekontua dute.

ARETXABALETA

Pilarik gabeko jostailuen bilketa egingo dute ludotekan

Aretxabaletako ludotekak jostailu bilketa kanpaina jarri berri du martxan. Kanpainaren helburua da ume eta gazteek etxean soberan dauzkaten jostailuak batzea, eta gero, batutako jostailuak herrian jostailurik gabe geratuko diren haurren artean banatuko dituzte. Jostailuak batzeko orduan ludotekatik jarri dituzten baldintzak honakoak dira: jostailuak pilarik gabekoak izatea eta egoera onean egotea. Hilaren 19ra arte jasoko dituzte jostailuak Aretxabaletako ludotekan, 17:00etatik 19:30era bitartean.

ARETXABALETA

Musika eskolako piano eta metal ikasleen entzunaldia bihar

Leizarra musika eskolako piano eta metal instrumentuen ikasleek emanaldia egingo dute bihar, martitzena, Arkupeko Zaraia aretoan, 18:00etan. 7 eta 21 urte arteko gaztetxoak izango dira, eta orain arte egindako lana gurasoei erakutsiko diete. Bestalde, hilaren 18an, parrokian, Gabonetako kontzertua emango dute musika eskolako instrumentu ikasle gehienek, 17:00etan. Bertara edozein ikus-entzule joan ahal izango da gaztetxoek egiten dutenaz gozatzera.

ARETXABALETA

Gaztaina saltzailea Mitarte kalean izango da eguenean

Azken urteotan egin ohi izan duten moduan, aurten ere, Aretxarte merkatarien elkarteak antolatuta, hiru eguenetan gaztaina saltzailea izango da Mitarte kalean. Lehenengoz, eguen honetan izango da gaztaina saltzailea Aretxabaletan; hilaren 13an, alegia, 18:00etatik aurrera. Hilaren 20an eta 27an ere bertan izango da. Bestalde, Aretxartetik gogorarazi nahi izan dute Gabonetan zozketa bereziak egingo dituztela herritarren artean opariak banatzeko.

ESKORIATZA

Zapatuan ehiza postuak garbitzeko irteera egingo dute

Eskoriatzako Aldaipe Ehiza eta Arrantza Elkarteak irteera antolatu du ehizako postuak garbitzeko. Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, zapatuan, hilak 15, egingo dute irteera eta Akeitako geltokian elkartuko dira 08:00etan. Lanerako taldeak antola ditzaten, Aldaipetik jakinarazi dute eurei abisatzeko eguaztena baino lehenago. Aldaipeko egoitzan bertan utz dezakete abisua interesatuek, 17:30etik 18:30era bitartean, edo telefono hauetan: 943 71 30 48 edo 680 32 30 32.

ARETXABALETA
MIRARI ALTUBE

Udazken jai bikaina

Martitzenean ospatu zuten Kurtzebarri eskolako kideek Udazken Jaia Iturrigorri pilotalekua jendez lepo zela. Txalapartariak, trikitilariak, irrintzi lehiaketa, dantza, gaztaina erreak eta buzkantza izan zituzten.

ARETXABALETA
NEREA LETE

Gonzalez eta Mendiaratx garaile

Hibai-Gain gastronomia elkarteko mus txapelketako irabazleak izan ziren Ladislao Gonzalez eta Miguel Mendiaratx argazkiko gizonak. Bikote hori izango da ordezkaria Aretxabaletako elkarte arteko mus txapelketan.

ESKORIATZA

Koloneko kirurgia eta prebentzioa hizpide

A.T. | ESKORIATZA

Bihar, martitzena, hitzaldia egongo da Ibarraundi museoan, 19:00etan, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuaren eskutik. Osasun Ikasgela horretan, Izaskun Markinez Debagoieneko Ospitaleko zirujauak koloneko kirurgiaren gaia landuko du, eta, horri oso lotuta, koloneko minbizia goiz detektatzeko programak duen garrantziari buruz ere hitz egingo du.

Hitzaldian, Markinezek kontu hauei buruz egingo du berba: zer den kolon kirurgia, kirurgia beharra duten patologiak, koloneko minbizia goiz detektatzeko programa eta prebentzioa, minbizia eta kirurgia, eta aholkuak.

Gogoratu behar da koloneko minbizia goiz detektatzeko programa Debagoien osoan egin dela. Oñatin bigarren bueltan daude dagoeneko eta laster ekingo diote bigarren bueltari Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Aramaion eta Leintz Gatzagan. Arduradunek diote garrantzitsua dela proba bi urtean behin egitea.

ESKORIATZA

Orri-puntuen lehiaketan parte hartzeko azken eguna

A.T. | ESKORIATZA

Datorren urtean Udal Liburutegian erabiliko den orri-puntua aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur, astelehena. Saria 250 euro izango da irabazlearendako eta lanak liburutegian aurkeztu behar dira.

Lehiaketan edozein pertsonak parte hartu ahal izango du eta aurkeztutako lanak 21x5,5 zentimetro izan beharko ditu. Orri puntuak egilearen izenik gabe aurkeztu behar dira eta orriaren alde bat bakarrik landu behar da; atzean lelo bat besterik ez da jarri behar. Horrekin batera, eskutitz itxi batean leloa bera eta egilearen datuak adierazi beharko dira.

Saritu gabe geratzen diren lanak 30 eguneko epean jaso ahal izango dira, 2013ko urtarrilaren 21tik kontatzen hasita. Epea amaitu ondoren egileek euren lanak jaso ez badituzte, Udalak erabaki ahal izango du haiekin zer egin. Kasu horretan, ez da erreklamazio edo kalte-ordain eskubiderik onartuko.

ARAMAIO

Mikel Muñoz | Orixol mendizale elkarteko diruzaina

"Parte hartzea altuagoa izan zitekeen arren, urteak eman duenarekin pozik gaude"

Alex Txikonen bideo emanaldi arrakastatsuarekin itxi du Orixol elkarteak 2012ko egitaraua; bazkide berri edo federatu egiteko gaur da azken eguna

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Duela bospasei urte sartu zen Mikel Muñoz (Aramaio, 1987) Orixol elkartean. Egun diruzaina da. Hala ere, azaldu digu lanak ez daudela erabat banatuta: "Denok egiten dugu ahal duguna, ahal dugunean". Belaunaldi aldaketa bermatzeko sartu zen elkartean; gustura hartu gaitu euren egoitzan, Kultur etxean.

Hasteko, zenbat bazkide ditu egun Orixol mendizale elkarteak?

180 inguru. Horietatik 100 bat federatuta daude. Orain bertan, gainera, bazkide eta federatu kanpainarekin ari gara. Lehenik eta behin kanpainaren berri ematen diegu bazkideei eta gogora ekartzen diegu orain dagoela aukera 2013ra begira aldaketaren bat egin gura badute aldaketa hori egiteko. Eskaerarik egiten ez duenak lehengo egoera berean jarraituko du datorren urtean.

Hala, aldaketarik egin gura duenak abenduaren 10erako [gaur] egin beharko du aldaketa. Epez kanpo datozenei salbuespen batzuk egin izan dira baina komeni da dena epe barruan egitea.

Nola baloratzen duzue 2012a ekintzei dagokienez?

Balorazio orokorra ona da, jendeak parte hartu du. Beti ere parte hartzea altuagoa izatea nahi duzu, baina pozik gaude. Antolatzen ditugun probetan-eta dirua galtzen dugu normalean baina urte amaieran ondo egoten bagara, aurrera. Ekintzak urterokoak dira: eski irteera, Piriniotara irteera eta Aitor Aranaren omenezko martxak ez dute hutsik egiten. Sagardotegian bazkaria ere egiten dugu baina aurten berandu ibili gara eta ez dugu egin. Era berean, aurten erreka garbitu dugu, bi urtean behin egiten den ekintza. Amaitzeko, azaroaren 30ean Alex Txikon etorri zen Sastiñara.

Azken bi ekintza horiek harrera ona izan dute, ezta?

Mikel Muñoz Kultur etxean, Aramaio ibaia atzean duela | JOKIN BEREZIARTUA

Bai. Erreka garbitzeko agertu zen nahikoa jende eta eguraldiak eutsi zuen. Garbitu ostean hamarretakoarekin hasi ginenean hasi zen euria.

Txikonen bideo emanaldia ere ederto irten zen, 80 bat lagun elkartu ginen. Eta noski Txikon, ohi moduan, berba egiteko gogoz etorri zen.

Nolakoa da harremana Udalarekin? Diru-laguntza ematen dizue?

Harremana ona da. Zerbait eskatzen dugunean ematen digute edo laguntzen saiatzen dira, eta alderantziz. Diru-laguntza urtero ematen digute eta gainera, Arabako federaziotik ere jasotzen dugu laguntza.

Nola dago Orixol diru aldetik?

Betiko antzera. Egia esan, krisia ez dugu larregi nabaritu. Diru-laguntza batzuk kendu dituzte baina urte amaierara ondo heldu gara. Probetan-eta normalean dirua galtzen badugu ere, aurten ondo irten zaizkigu gauzak.

"Krisia ez dugu larregi nabaritu, ondo heldu gara urte amaierara"

Aldaketetarako, gaur azkena

2013rako mendian federatu eta Orixol mendizale elkarteko bazkide egiteko azken eguna da gaur. Hamar euro ordaindu beharko dute helduek; 18 urtetik beherakoek, berriz, bost euro. Gainera, bazkideak eta federatuak direnek aldaketaren bat egin nahi badute ere, gaur dute azken aukera. Horretarako eta tarifa berrien berri jasotzeko *orixolme@hotmail.com* helbide elektronikora idatzi.

ELGETA

Xalbadorpe elkarteko erretiratuek Gabonetako bingoa egingo dute gaur

Eguaztenean 60 bat lagun elkartu ziren Ikusi Makusi taldearen emanaldia ikustera

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak hiru hitzordu antolatu ditu aste honetarako. Lehenengoa, gaur, astelehena egingo dute, izan ere, 17:30ean hasita Gabonetako bingoa egingo dute Ozkarbi elkartean. Bazkide guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuak.

Eguaztenean, hilak 12, Bergarako Alai abesbatza gonbidatu dute Espaloia kafe antzokian emanaldia egitera. Iaz moduan, Bergarako taldeak ordubete inguruko saioa egingo du. Atsedenean, Gaizka Morales gazte elgetarraren dantza emanaldia ikusteko aukera egongo da. Saioa 18:00etan hasiko dute eta sarrera doan da.

Kultura Asteari amaiera emateko Gabonetako luntxa egingo dute erretiratuek hilaren 14an, barikua. Ozkarbi elkartean elkartuko dira eta hitzordu hori ere elkarteko bazkide diren guztiei dago zabalik.

Antzezlana

Bestalde, eguaztenean, hilak 5, Oñatiko Ikusi Makusi antzerki taldekoek *¿Dónde está la pierna del alcalde?* antzezlana egin zuten Espaloia kafe antzokian, eta 60 lagunetik gora elkartu ziren emanaldia ikusteko. Bigarren urtea da Ikusi Makusi taldekoak Elgetako erretiratuen Kultura Astean parte hartzen dutela. Gustura joan ziren bai ikusleak bai antzezleak.

Ikusi Makusiko kideen antzezlana Espaloian. | L.Z.

ANTZUOLA

Gazte txokoak zapatuan zabalduko ditu ateak, baita Gabonetan ere

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Abenduaren 15ean eta 16an, zapatuan eta domekan, gazte txokoak 2012-2013 ikasturteko ateak irekiko ditu. Zapatuan 17:00etatik 21:00ak arteko ordutegia izango du eta domekan, 17:00etatik 20:00ak artekoa.

Gabonetako jaiegunetan ere gazte txokoaz disfrutatzeko aukera egongo da –abenduaren 22an eta 23an eta 29an eta 30ean ere zabalik egongo da–, aipatutako ordutegiarekin. Hala, gazte txokoa astebururo zabalik egongo da, martxoaren 24ra arte, Aste Santura arte. Bertan parte hartzeko ez da izenik eman behar, ezta kuotarik ordaindu behar.

Bestalde, abenduren 12an, gazte txokoan, 18:30ean, gurasoekin batzarra egingo da ikasturtearen gaineko azalpenak emateko. Gazte txokoaren funtzionamenduaz eta programazioaz berba egin gura da gurasoekin, besteak beste. Lau begiralek egingo dute lan 12-15 urteko gaztetxoekin, astebururo txandakatuta.

Mendiko federatu txartela

2013rako mendiko federatu txartela Arrolaren bidez egin nahi dutenek gaur daukate aukera. Horretarako, Arrolako batzarkideak Olaranen izango dira, 19:00etatik 20:00etara. 2012an federatu txartela izan dutenei gutuna bidali diete; izan ere, 2013an aseguruaren estaldura berekin jarraitu nahi dutenek ez dute ezer egin behar. Baja eman nahi duenak edo aldaketaren bat egin nahi duenak, aldiz, abisua eman beharko du gaur.

LEINTZ GATZAGA

Facebook ezagutu gura dutenek ikastaroa dute KZgunean urtarrilean

Urtarrilaren 13an, astelehena, izango da, baina izena aurrez eman beharra dago udaletxean

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Hamabostean behin zabaltzen ditu KZguneko ateak Aitor Madrid dinamizatzaileak. Herritarren zerbitzura egoten da bertan, zalantzak argitu eta argibideak ematen. Dinamizatzailea bertan izaten dela aprobetxatuta Interneten gaineko ikastaroak antolatzea pentsatu du Udalak, eta lehenengoa urtarrilaren 13an, astelehena, izango da. Facebook sare sozialaren gaineko argibideak emango ditu orduan (18:00-20:00). Izena aurrez eman beharra dago udaletxean (943 71 46 47) edo Labidea dendan; kopurua mugatua izango dela jakinarazi dute, ordenagailu bakoitzean lagun bakarra egotea komeni delako.

Lehenengo ikastaro hori batez ere helduendako izango da, gurasoendako, esaterako; izan ere, gazteek ez daukate eskola beharrik. Horren arrakasta ikusi ostean erabakiko dute 2013an gehiago antolatu edo ez.

Koloneko kirurgia: berbaldia

Bestalde, bihar, martitzena, koloneko kirurgiaren eta prebentzioaren gaineko berbaldia izango da Eskoriatzako Ibarraundi museoan (19:00). Izaskun Markinez Debagoieneko ospitaleko zirujauak emango ditu argibideak eta landuko dituen kontuen artean daude: kirurgia behar duten patologiak; koloneko minbizia…

SARI NAGUSIA

XBOX 360 + HALO REACH JOKOA

Bidali KLUBA XBOX [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

EROSKI

ABENDUKO SARIAK

LIBURUA

Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

aed arrasate euskaldun dezagun



CDA

Bidali KLUBA CD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

TXIKILANDIARAKO 4 BONO

Bidali KLUBA TXIKILANDIA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

txatxilipurdi

GOENKALE ANTZEZLANERAKO SARRERAK

Bidali KLUBA GOENKALE [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

GOSPELERAKO SARRERAK

Bidali KLUBA GOSPEL [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

MAIKA MAKOVSKI

Bidali KLUBA KONTZERTUA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

Parte hartzeko

Telefonoz:
943 25 05 05
E-postaz:
kluba@goiena.com
WhatsApp bidez:
688 69 00 08

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Atera etekina

goienakluba 2012

%15 eko deskontua

BEGIONDO optika
Aretxabaleta
943 79 98 21

- **%15 produktu guztietan.**
- **Kontsulta doan.**

LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAI

AQUARIUM
Donostiako aquarium-a
Donostia, 943 44 00 99

ARGIA
euskarazko aldizkari orokorra
Lasarte-Oria
943 37 15 45 - 943 37 34 03

AVIA MECA
gasolindegia
Arrasate, 943 79 13 39

EUREKA!
zientzia museoa
Donostia, 943 01 24 78

ESKO SPORT
kirol denda
Eskoriatza, 943 71 52 96

GAHIR
fisioterapia-osteopatia
Eskoriatza, 943 71 43 41

GAES
entzumen zentroa
Arrasate, 943 71 27 93
Bergara, 943 76 94 55

GUZTIZ EDER
edertze zentroa
Oñati,
943 78 01 46.

IKER
SUKALDEAK
sukaldeak
Arrasate, 943 79 00 43
Oñati, 943 53 35 48

IZENADUBA BASOA
Euskal Herriko parke mitologikoa
Mungia, 94 674 00 61

JAIXAK
denda
Bergara, 943 76 31 45

LASTAI
haurtzaintza eta atseden gunea
Gasteiz, 945 35 85 59

LILURA
edertze zentroa
Bergara, 943 76 31 71

MULTIOPTICAS
optika
Arrasate, 943 79 29 95
Bergara, 943 76 15 75

NAREN
fisioterapia zentroa
Aretxabaleta,
943 08 21 89

RENAULT AUTOBERRI
kontzesionarioa
Arrasate, 943 71 24 72

TXURI URDIN
izotz jauregia
Donostia,
943 46 44 00

Urteko kuota: **50 €**. | Tel.: **943 25 05 05**
e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com*

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

KIROLA

SASKIBALOIA

Gipuzkoarrak izan dira Iturripen Euskadiko txapelketako izarrak

Gizonezko eta emakumezkoetan Gipuzkoako selekzioa izan da irabazle Iturripen jokatu den gazte mailako Euskadiko txapelketan

Gipuzkoarrak, irabazi zuten garaikurrarekin. | JOSE

EMAITZA

GIPUZKOA
71-67
ARABA

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Euskadiko gazte mailako txapelketa urtero jokatzen da, eta oraingoan Arrasatera etorri dira Euskadiko gazte mailako jokalari onenak. Jai egun hauek aprobetxatuz, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko ordezkariak euren artean lehiatu dira, gaur egun Euskadiko selekzio onena zein den argitzeko, eta gipuzkoarrek jantzi dute koroa bai gizonezko baita emakumezkoetan ere.

Eguenean hasi zen gazte mailako Euskadiko saskibaloi txapelketa Arrasateko Iturripe kiroldegian. Hiru egunetan maila handiko saskibaloia ikusi zuten Iturripera gerturatu ziren zaleek, eta atzokoan, partidu erabakigarrian, Gipuzkoako gizonezko selekzioak Arabakoa mendean hartu zuen 71-67ko emaitzarekin.

Partidu hasieran, gipuzkoarrak erraz jarri ziren aurretik markagailuan, eta Jon Gonzalez entrenatzaile tolosarrak esan zigun bezala, atsedenalditik bueltan, erlaxatuta irten ziren kantxara eta estuasun handiak pasatu zituzten partidua irabazi ahal izateko. Hala ere, norgehiagoka irabaztea lortu zuten eta horrela Euskadiko txapeldun izendatu ziren.

Hilabetez egon dira astero entrenatzen txapelketa hori prestatzeko, eta pozik egoteko moduko prestakuntza egin dutela esan digu Gonzalezek. Euskadiko gazte mailako jokalari onenak egon dira selekzioetan, eta horiekin taldea lortzea izan da entrenatzaileen helburu nagusia. Jokalariak euren taldeetan erreferenteak izan ohi dira, eta entrenamenduetan, talde sendoa sortzen saiatzen dira. Bakoitzak jokatzeko bere era du, eta hainbat taldetan rol nabarmenak izaten dituzte, baina selekzioa talde bat bilakatzeko helburuz, rol hauek aldatu egiten dira, bakoitzak egiten dakiena taldearen onerako erabiltzeko.

ESKUBALOIA

GIZONEZKOAK	
Araba-Bizkaia	69-80
Bizkaia-Gipuzkoa	66-76
Gipuzkoa-Araba	71-67

EMAKUMEZKOAK	
Araba-Bizkaia	63-59
Bizkaia-Gipuzkoa	55-63
Gipuzkoa-Araba	76-56

Emakumeetan ere txapeldun

Emakumeen mailan ere gipuzkoarrak txapeldun izan ziren, zapatuan Bizkaiko selekzioaren aurka 55-63 irabazi ondoren eta atzo arabarrak 76-56ko emaitzarekin mendean hartu ondoren. Michelle Olave jokalariak esan zigunez, irabaztea espero zuten baina hasieran pentsatu baino zailagoa izan zen txapeldun izatea. Bizkaiaren aurkako partidua zailena izan zela aitortu zuen Olavek.

Lagunekin egoteko aukera

Mikel Atxa arrasatearra Gipuzkoako selekzioko debagoiendar bakarra izan da, eta lehiaketaz aparte, txapelketako jokalarien arteko giro ona nabarmendu zuen. Hitzordu horiek aspaldian ikusi gabeko lagunekin egoteko aukera dela esan zigun eta saskibaloian jokatzeaz gain, lagunartean asteburu polita pasatzeko aukera paregabea dela gaineratu zuen.

Antolakuntza paregabea

Oso balorazio positiboa egin zuten Euskadiko txapelketa amaitu ondoren eragile guztiek. Arrasaten lehenengoz jokatu da txapelketa, eta Ointxe! saskibaloi taldekoek lan ederra egin dutela esan zuten Euskadiko federazioko kideek, eta beharbada, datorren urtean bueltan izango da txapelketa. Gorka Zurututzaren esanetan, lehenengo urtea izanda, lan gogorra izan da, baina saskibaloiarentzako eta herriarendako ona dela uste du. Iturripeko harmailak zelan zeuden ikusita, publikoak ere pozik amaitu zuen; beraz, datorren urtean errepikatzea polita izango litzateke.

MIKEL ATXA | SELEKZIOKO JOKALARIA

"Euskadiko onenei irabazi diegu, baina lehia parekatuak izan dira"

U.M.

Txapelketa irabazita, Gipuzkoako selekzioko Mikel Atxak pozik erantzun zituen galderak.

Zorionak!

Eskerrik asko!

Lehia estu samarra izan da, baina irabazi egin duzue.

Bai; azkenean, Euskadiko onenen kontra jokatu dugu. Infantil eta kadeteetan ere irabazi egin genuen, baina beti parekatuta ibili eta gero. Pozik egoteko emaitza lortu dugu gaurko honetan.

Hitzordu hau aspaldiko lagunak batzeko izango da...

Bai; txikitatik selekzioan ibiltzen bazara, jende piloa ezagutzen duzu, eta sortzen den giroa beti da oso ona, barre asko egiten dugu elkarrekin...

Jokalari gisa eskertzen dituzue halako torneoak, ezta?

Bai. Gutxitan izaten dira horrelakoak, bi urtean behin bakarrik, eta esperientzia polita izaten da beti, eskertzekoa da.

BEÑAT BARBERENA
ARRASATE

"Partidu polita ikusi dugu. Giroa, bestalde, itzela da; urte askoan jokatu dut Iturripen, eta gaur jende asko etorri da. Oso pozgarria da etxekoekin jokatzea: gurasoak etortzen dira, lagunak ere bai...".

MARISOL GONZALEZ DE ASPURU
GASTEIZ

"Gasteiztik gatoz. Hirugarren urtez etorri gara torneoa ikustera. Arrasateko lehiaketa oso ondo antolatuta egoten dela iruditzen zaigu, eta giroa ere oso ona izan da. Primeran ibili gara, bai".

BELEN KORTABARRIA
ARRASATE

"Hiru semeok jokatzen dute saskibaloian, eta lagun egitera etortzen naiz, baina neuk ere ondo pasatzen dut. Urte osoan dabiltza pozik saskibaloian, eta horrelako ekintzek bereziki animatzen dituzte".

LANDER LASA
TOLOSA

"Arrasaten saskibaloia bizi da, eta Gipuzkoak irabazten duenean jendeak animatzen du. Ea torneoak balio duen jende gazteak gogoarekin hartzeko saskibaloia eta horrela futbola alde batera uzteko".

NAHIA BADIOLA
ARRASATE

"Arrasatekoa naiz eta saskibaloia ikustera etorri naiz, gustatu egiten zaidalako. Ikusi dudana asko gustatu zait. Beharbada hemendik urte batzuetara neu ere ibiliko naiz kantxan!".

SASKIBALOIA | Soraluze-Bergara BKEko entrenatzaileari elkarrizketa | 23

TXO ARANTZABAL

Gipuzkoa eta Arabako selekzioen arteko norgehiagoka. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikusleek emozioz jarraitu zituzten partiduak. | UBANE MADERA

aurreztu
gastuetan % 50
eska iezaiguzu ikerketa bat konpromezurik gabe!

www.fincasdonosti.com

Jarri zure komunitatea eskurik onenetan
Espezialistak gara

Zure komunitatearentzako onena eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan

- Jabekideen komunitateen kudeaketa integrala
- Bulego-eraikinen kudeaketa integrala
- Garaje-solairuen kudeaketa integrala
- Atzeratutako kuotak kobratzeko kudeaketa
- Alokairuen kudeaketa
- Eraikinen ikuskapen teknikoak: EIT
- Garbiketa-zerbitzuak
- Mantentze-lanak eta konponketa zerbitzua eguneko 24 orduetan.
- Bulegoa irekita eguneko 24 orduetan

FINCAS DONOSTI

Fincas Donosti-Arrasate
Garibai 6B Bis ARRASATE
Tel eta Faxa.: 943 252638
E-posta.: arrasate@fincasdonosti.com
www.fincasdonosti.com

SASKIBALOIA

Garaipen bolada berri bat lortzeko bidean dago Oñatiko Natra taldea

- Lehen laurdenean lortutako abantailari esker partidu lasaia izan zen zapatukoa
- Saski azpiko jokoan Cavada eta De la Iglesiak euren nagusitasuna garbi utzi zuten

EMAITZA

NATRA OÑATI

88-73

ALUMINIOS ALBERDI

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Zeziaga (4), Gartzia (28), De la Iglesia (10), Kintana (8), Cavada (19), Gamarra (8), Zabaleta, Lizarrade, X.Osa (3), Biain (8), I.Osa.

Aluminios Alberdi: De Miguel (28), Lorenzo (8), Saez (6), Pozo (5), Bereziartua (3), Aranburu (8), Sudupe (2), Goikoetxea (11), Linazasoro, Gomez, Antzizar, Lasa (2).

Beste: Zubikoa kiroldegia jendez gainezka egon zen.

Asier De la Iglesia barneko jokoan gogor. | JOSETXO ARANTZABAL

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Lehenengo hiru minutuen ondoren, emaitza 9-0 zen Zubikoan, eta Cavadaren mateak argi utzi zuen Oñatikoen nagusitasuna margo gainean. Ondo baino hobeto hasi zen zapatuko norgehiagoka Blancoren mutilentzat, eta partidu osoan zehar gidoia berdintsua izan zen: Oñatikoek errebote defentsiboa kontrolatu eta gero azkar jokatzen saiatu. Urretxukoek zonakako defentsa erabili zuten lehen partzialeko saskiraketa jarioa mozteko. Hala ere, hiruko marratik fin ibili ziren eta buru hotzarekin erasotu zuten defentsa. Lehen laurdenean partidua bideratuta utzi zuten.

Hurrengo garaipenaren bila

Atsedenaldia heldu aurretik, Urretxukoek 3-15eko partziala lortu zuten, baina hirugarren laurdenean berriz ere errebotea kontrolatu eta partiduaz jabetu ziren oñatiarrak. Aipatzekoa Gartziak eta Cavadak egindako partidua: bien artean 47 puntu lortu zituzten. Sei partidutik bost irabazi dituzte eta aste honetan seigarren garaipena lortzen saiatuko dira sailkapeneko lehen postuan jarraitzeko eta bolada onari eusteko.

XABIER OSA
NATRAKO JOKALARIA

"Ondo etorri zitzaigun galdutako partidua"

JAGOBA DOMINGO

Garaipen garrantzitsua gaurkoa?
Bai. Sailkapenean beheko taldeen aurka arazoak izan ohi ditugu, partiduko tarte batzuetan kontzentrazioa falta izaten dugulako. Baina gaurkoan partidu osoan zehar gogor eta bizi jokatu dugu.

Zein izan da irabazteko gakoa?
Errebotea kontrolatzea oso garrantzitsua izan da. Asier de la Iglesia eta Josean Cavadak lan bikaina egin dute gaurkoan. Guretzat oso garrantzitsua da horrelako jokalariak izatea, jokatzen hasteko aukera ematen digutelako.

Bolada onean berriz ere?
Hori espero dugu, etxean partidu erraza galtzea ona izan zen guretzat, adi egon behar dugula argi utzi zigulako. Aurrerantzean jarraitu behar dugun bidea argi dugula uste dut.

PILOTA

Urbieta eta Diez-ek osatutako bikotea Bankoa-DV txapelketako finalera

- Bikoteak errez mendaratu zuen Ansotegi eta Perez bikotea (22-12)
- Dariok eta Imazek eskuratu zuten gazte mailako finalerako txartela (22-12)

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Zapatu arratsaldean Urbietak eta Diezek osatutako bikoteak erraz eskuratu zuen Bankoa-DV txapelketako finalerako txartela Ansotegi eta Perezen aurka, Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Zapatukoarekin, Aitor Diez, 2011ko txapelketako irabazleetako bat, Bankoa-DV txapelketarako finalera jarraian sailkatzen den bigarren aldia da.

Partidu hasieratik bikote gorria garaipenaren bila joan zen, eta lehenengo tantoak egin ahala, Perez atzelariak ohikoa baino gehiago kale egiten zuela konturatu ziren. Hala ere, partiduaren hasieran bikote urdinak Urbieta eta Diezi finalerako txartela oparitzeko intentziorik ez zutela erakutsi, eta lehenengo tantoa eurek egin zuten. Ondoren, bikote gorriak aurre hartu, eta urdinek launa berdintzea lortu zuten. Norgehiagoka borrokatua izan behar zuela zirudien arren, berdinketa horrekin bukatu zen partida: Urbietak eta Diezek hiru tanto egin eta urdinek bi egin ostean, gorriek jarraian zortzi puntu egitea lortu zuten (15-6).

Hortik aurrera, Urbieta eta Diez pilotak atzera botatzen hasi ziren, eta Perezek noiz huts egingo zain geratu ziren. Bukaeran, 22-12, eta bikote gorria finalera. Urbietak eta Diezek hurrengo zapatuan jakingo dute zeintzuk izango dituzten aurkari.



Urbieta sake bat egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

Gazte mailan, Dario eta Imaz

Norgehiagoka horren aurretik, Bankoa-DV txapelketako gazte mailako finalerdia ere jokatu zuten, eta kasu horretan, Dario errioxarrak eta Imaz oiartzuarrak lortu zuten finalerako pasea.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara hirugarren eta Aretxabaleta laugarren dira, asteburukoak irabazi ostean

Aloña Mendik galdu egin du; entrenatzaile Azkargortak zaleen laguntza eskatu du datorren partidurako

UBANE MADERA | ARRASATE

Lehen buelta bukatzeko lau partidu falta diren jardunaldi honetan, gure ibarreko talde guztiek etxetik kanpo jokatu dute. Eta nabarmentzekoa da Bergarako taldeak lortu duen garaipenaren garrantzia (0-1, Tolosaren kontra). Batetik hiru puntuak eskuratuta, hirugarren postuan daudelako mahoneroak. Eta bestetik, ekipo zaila den Tolosari irabazita, lehenagotik indartsu dauden bergararrak orain motibatuago eta ilusionatuago daudelako aurrera begira.

Iazko arantza kenduta

"Iaz Tolosak sekulakoa eman zigun, lau gol sartu ziguten eta asko sufritu genuen. Guretako beti izan da zelai zaila. Baina gure joera ikusita, ilusionatuta eta gogotsu joan ginen. Bagenekien Tolosa teknikoki oso talde ona dela, oso jokalari onak dituela, azkarrak direla, taktikoak... Lehen zatian eurek menderatu zuten jokoa. Baina guk taldeko lana egin genuen. Azkenean 20-25. minutuan falta egin ziguten area bazterrean, Baltzategik jaurti zuen, eta gola sartu genuen", kontatu du Neka Galan entrenatzaileak.

Partidu zailak

"Nabarmenduko nuke taldea oso dinamika onean dagoela eta ea lehen buelta amaitzen dugun puntuak batzen, eta hor goian segitzen, ze hori oso ilusionagarria da kluba, taldea, jokalari, direktiba eta baita herriarendako ere. Hurrengo bi partiduak etxean jokatzen ditugu. Egia esan, partidu gehiago irabazi ditugu kanpoan; hala ere, beti da ona etxean jokatzea. Gainera, orokorrean jendea oso ilusionatuta dago", gaineratu du Galanek.

Bederatzi puntu

Partiduaz aparte, nabarmentzekoa da Bergarako Soto atezainak min hartu zuela Tolosan. "Zutoinaren kontra jo zuen, eta bederatzi puntu ipini behar izan zizkioten buruan. Eskanerra ere egin behar izan zioten", kontatu du Galanek.

Aretxabaletak ere irabazi

Pozik etxeratu dira, baita ere, aretxabaletarrak, Aurrera taldeari 1-3 irabazi ostean. "Garaipena merezitakoa izan zela uste dut. Hiru gol sartu genituen baina aukera dezente gehiago ere izan genituen. Azken partiduetan taldea oso ondo dabil, oso indartsu, oso serio atzean, gola penaltiz sartu ziguten, eta nik taldea ondo ikusi nuen: jokatu beharra zegoenean jokatu egiten zuten, moztu beharra zegoenean moztu... oso gustura atera nintzen partidutik", adierazi du Alberto Albistegi entrenatzaileak.

Neka Galan. | GOIENA

Aurrera begira, Albistegik gogora ekarri du Gabonen aurretik lau partidu jokatu behar dituztela etxean eta "ea bada maila ona ematerik badugun. 13 jardunaldi daramatzagu, lehen buelta bukatzeko lau geratzen dira eta sailkapenean ondo kokatzen gabiltza. Egin behar duguna da maila ahalik eta luzaroen mantenu, partiduz partidu joan ikusten, eta hurrengo partidua Zarautzen kontra dugu eta hor ere puntuak irabazten ahaleginduko gara. Taldea oso ondo dago, lehiatzen asmatzen dabiltza, taldea ilusio handiarekin ikusten dut eta hori da garrantzitsuena", dio.

Aloña Mendik galdu

Penatuta zebilen, berriz, Andoni Azkargorta, bere mutilek galdu egin zutelako 2-0 irabazten joan ostean. Penatuta, batez ere, 92. minutuan sartu zielako Real Unionek hirugarren gola. "Partidua galdu genuen lehen ordu erdian. Ez ginen ondo sartu, eta ez ginen gure mailarik onenean egon. Ordutik aurrera bai, hasi ginen jokatzen, partiduaren pisua eraman genuen, to, baina bukaeran hirugarren gola egin zuten eta partidua galdu egin genuen".

Lehen buelta ondo amaitzearen garrantzia ere azpimarratu du oñatiarren entrenatzaileak: "Datorrena irabazi beharreko partidua da, atzeko ekipoek puntuak murriztu egin dizkigute eta Urolaren kontra dugu; gure atzetik dagoen talde bat da eta etxean jokatzen dugu; hortaz, nik uste dut hiru puntuak derrigorrezkoak direla". Horretarako, baina, zaleen laguntza eskatu du: "Hurrengo partiduan zaleen beharra izango dugu; gure aldetik egin beharreko lana egingo dugu, baina zaleen laguntasuna eskertzekoa izango da".

Mondra pozik garaipenarekin

Bukatzeko, Mondrak ere garaipena erdietsi du oraingoan, 2-4. "Pozik gaude ze oso partidu ona egin dugu. 40 segundora sartu dugu gola, baina lehen zatia 2-1 galtzen bukatu da. Bigarren zatian oso ondo jardun dugu eta hortxe irabazi dugu partidua. Pena izan da epaileak txartel asko atera izana eta horren erruz Iker Uribarren, Zabaleta eta Mikel Gonzalez baja izango dira hurrengo partiduan", zehaztu du Lutxo Iturrino entrenatzaileak. Hurrengo Hondarribia izango du aurrez aurre, etxean.

ESANAK

"Taldea oso dinamika onean dago; ea lehen buelta puntuak batzen amaitzen dugun"

NEKA GALAN | BERGARA K.E.

"Azken partiduetan taldea oso ondo dabil, oso indartsu eta oso serio atzean"

ALBERTO ALBISTEGI | ARETXABALETA K.E.

"Hurrengo partiduan zaleen beharra izango dugu, irabaztea derrigorrezkoa da"

ANDONI AZKARGORTA | ALOÑA MENDI K.E.

"Oso partidu ona egin dugu baina epaileen txartelen ondorioz, hiru baja ditugu orain"

LUTXO ITURRINO | MONDRAGON C.F.

ARETO FUTBOLA

Bi astean galdu gabe, eta hirugarrenean, beharrezko garaipena lortu zuen Eskoriatzak

- Partidu nahasi samarra izan zen, falta, penalti eta kanporaketa batzuekin
- Bolada txarra bukatutzat jo dute eskoriatzarrek, eta edozein talderi aurre egiteko moduan daude

EMAITZA

ESKORIATZA **6-2** ABADIÑO

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Denboraldiko lehen garaipena lortu zuten Eskoriatzako areto futboleko mutilek zapatuan, eta hirugarren partidua segidan galdu barik. Horrekin, Erregional Ohorezko Maila lehiakorreko "edozein talderi aurre egiteko moduan" daudela deritzo Narciso Pavo entrenatzaileak.

Lehen zati bikaina egin zuten eskoriatzarrek, kontrakoaren atera samur ailegatzen, eta segituan ipini ziren 2-0 aurretik. Kontrakoek bost falta egin zizkieten, eta hiru penalti bikoitz adierazi zituen epaileak; hirurak sartu zituzten Eskoriatzakoek, eta 5-0 emaitzarekin pozik joan ziren atsedenera.

Bigarren zatia nahasiagoa izan zen. Kontrakoak oldarkor irten ziren eta Eskoriatzakoek, urduri, baloia haiei utzi zieten, defentsara pasatuz. Tarte horretan bi gol jaso zituzten. Posizio-erasoez eta motzeko laguntzez lortu zuten presioa gainetik kentzea eta baloiaren jabe egitea. Azken hamar segundoetan seigarren gola egin zuten.

Taldeak bukatutzat jotzen du sasoi txarra, min hartutakoak eta kanporatutako jokalariak bueltan datozela.

Lehia handiko partidua jokatu zuten Eskoriatzan. | JOSETXO ARANTZABAL

ERREGIONAL PREF.

Berdinketarekin, lider segitzen du Antzuolako taldeak

Antzuolak berdintzea lortu du oraingo honetan Elgoibarren kontra, bana, Elgoibarren. Hala ere, taldeko lider izaten jarraitzen du. Hurrengo partidua Lazkaoren kontra jokatu beharko du, bosgarrenaren kontra, beraz. Etxean dute hitzordu hori, beraz, irabazteko esperantzarekin.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Borrokatu arren, galdu egin dute Mondrako neskek

3-1 galdu dute Mondrako neskek, San Inazioren kontra (hirugarrenak). 0-1 aurretik ipini arren, 20. minutura banakoa sartu diete eta ia atsedenean, txartel gorria, penaltia eragiteagatik. Penaltia geratu arren, baloia urruntzean gola sartu diete. "Bigarren zatian, bat gutxiagorekin, borrokatu dute, baina beste gol bat sartu digute", dio Andoni Ezkurrak.

Bigarren zatian Bergarako jokalariek ezer zulatu zuten talde bizkaitarraren atea. | ANDER MONEDERO

ESKUBALOIA

Nahiz eta lo hasi, Bergarak partidu garrantzitsua irabaztea lortu zuen

- Hirugarren minuturako Urdulizek lau goleko aldea zuen (0-4)
- Bigarren zatian Muniategiren mutilek defentsa lan handia egin zuten

EMAITZA

BERGARA K.E.
29-20
URDULIZ

ANDER MONEDERO | BERGARA

Duela aste batzuk Labegaraietako kiroldegiko arazo tekniko baten ondorioz Bergarak eta Urdulizek jokatu behar zuten partidua bertan behera geratu zen, eta zubian Euskadiko Txapelketako jardunaldirik ez zegoela aprobetxatu zuten taldeek partidua jokatzeko. Partiduaren aurretik sailkapenean bi puntuko aldea ateratzen zion Bergarak Urdulizi eta arerio zuzen bat atzean uzteko aukera ondo baino hobeto aprobetxatu zuen.

Nahiz eta Muniategiren mutilek partidu ona jokatu, norgehiagokaren lehenengo minutuak lo hasi zituzten eta hirugarren minuturako Urduliz 0-4 irabazten ari zen. Bergararrak momentu horretan konturatu ziren partiduak zuen garrantziaz eta, defentsa lanak ondo antolatzearekin batera, eskubaloian jokatzen hasi ziren.

Horrela, 15. minuturako, zortzina berdintzea lortu zuten. Momentu horretatik aurrera, Muniategiren mutilek markagailuan aurrea hartu eta geratzen ziren minutuetan abantaila mantendu eta handitzea lortu zuten. Atsedenaldirako, talde urdinak lau goleko aldea zuen (15-11).

Bigarren zatian, jokaldi luzeak

Aldageletatik irten ostean, Bergarako jokalariek lortutako aldea mantentzeko helburua finkatu zuten, eta horretarako defentsan estutu eta erasoko jokaldi luzeak egiten hasi ziren.

Urdulizek kanpoko jaurtiketak egiteko jokalari gutxi zituenez, etxekoak eroso sentitzen hasi eta bizkaitarrek erasoan egindako akatsak kontraerasoak egiteko aprobetxatu zituzten. Gauzak horrela, atsedenaldian lau goleko kontrako aldea zena partiduaren bukaeran bederatzi goleko garaipenerako aldea zen Bergararendako (29-20).

Egindako lanarekin pozik

Partiduaren bukaeran jokalariek egindako lanarekin pozik agertu zen Josetxo Muniategi. Entrenatzailearentzat, ligan estuasunik ez izateko ezinbestekoa zen Urdulizi irabaztea eta, nahiz eta hasiera kaskarra egin, partiduaren bigarren zatian defentsan egindako lana eta taldeak baloia jokatzeko orduan izandako lasaitasuna nabarmendu zituen.

GAZTE MAILA

Bergara Urola baino askoz gehiago izan zen (31-20)

Hamaika jardunaldiren ostean, denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuen Bergarak domeka goizean Labegaraietan jokatutako partiduan. Bergararrekin batera, Urola taldea zen punturik eskuratzea lortu ez zuen talde bakarra. Atzoko garaipenarekin, talde bergararrak Aloña Mendi gainditzea lortu du.

JOSETXO ARANTZABAL

GAZTE MAILA

Aloña Mendik ezin izan zuen liderraren aurka ezer egin (38-12)

Usurbilek txapelketako partidu guztiak zergatik irabazi dituen erakutsi zion atzo Aloña Mendiri. Oñatiarrek ezin izan zuten ezer ere egin eta Usurbilek 26 goleko aldea atera zion. Hurrengo astean, oñatirarrek ligako arerioaren bisita izango dute: Bergararen aurkako derbia izango dute Zubikoan. Ligan, bi taldeek partidu bakarra irabazi dute eta irabazten duen taldeak sailkapenean atzeko bi taldeekin distantzia lortzeko aukera izango du.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Taberna Aloña Mendik garaipen garrantzitsua lortu du

Sailkapenean postu bat aurrerago duen Urolaren aurka garaipen garrantzitsua lortu zuen zapatuan (24-23). Zapatuko garaipenarekin oñatiarrek lau puntu dituzte eta hurrengo astean, bi puntu gehiago dituzten hiru taldeak harrapatzeko aukera izango dute. Oñatiarrek Ordizia Rotula Studio taldearen etxean jokatuko dute eta talde gorriak, irabaztekotan, sailkapenean aurrerapauso garrantzitsua egingo du, ordiziarrak zuzeneko arerio baitira.

ERRUGBIA

Errugbi taldeak bigarren fasea hasiko du aste bukaeran

Igor Isasiren taldea B multzoan lehiatuko da, lehen fasean bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren lekuetan sailkatutako taldeen kontra: Uribealdea, Bathco Rugby Club, Uni Bilbao Rugby, Zaisa Irun, Elorrio RT, Hernano CRE eta Kantabriako Unibertsitatearen kontra. Bigarren faseak 14 jardunaldi izango ditu: abenduaren 9an hasi eta apirilaren 7an bukatuko da. Hurrengo partidua abenduaren 16an Mojategin jokatuko dute Zaisa Irun taldearen aurka.

ATLETISMOA

Ritxi Fernandez eta Marisol Ramos Altsasun azkarrenak

Ritxi Fernandez eta Marisol Ramos atleta oñatiarrak azkarrenak izan ziren zapatuan Altsasuko 29. Alberto Barricate memorialean. Altsasuko lasterketak 4,1 kilometroko zirkuituan lau buelta ematean datza eta lasterketak, guztira, 12,4 kilometroko luzera du. Fernandezek 41 minutu eta 46 segundo behar izan zituen lasterketako ibilbidea egiteko eta Ramosek, berriz, 46 minutu eta 46 segundo. Zapatuko garaipenarekin, Fernandezek lasterketa hau irabazten duen bigarren aldia da.

SASKIBALOIA

Asier Murua | Soraluze Bergara BKE-ko entrenatzailea

"Talde gaztea garen arren, denboraldirako daukagun helburua konpetitiboak izatea da"

- Asier Murua elgoibartarrak senior mailako mutilak eta kadete neskak entrenatzen ditu
- Bigarren urtez dihardu mahoneroekin entrenatzen; aurretik jokalari izandakoa da

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Asier Muruak (Elgoibar, 1976) bigarren urtea darama Soraluze Bergara BKE-ko saskibaloikoekin lanean. Jokalari izandakoa da, eta egun senior mailako mutilen eta kadete mailako nesken taldeak entrenatzen ditu. "Gustura" dagoela esan digu. Aste bukaeran jai izan dute. "Saskibaloia gustatu arren, partidu bako aste bukaerak asko eskertzen dira", dio.

Bigarren urtez diharduzu Bergarako saskibaloiarekin lanean, baina zu elgoibartarra zara.

Bai, hala da. Elgoibar taldeko jokalari izan naiz urte askoan. Orduko entrenatzaileak taldea utzi zuenean, niri egin zidaten eskaintza. Jokalari izateari utzi eta entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Handik etorri nintzen Bergarara. Iaz junior taldearen arduradun izan nintzen, eta aurten senior mailako mutilena eta kadete mailako neskena. Bi urte daramat, eta oso gustura nago. Elkartean pertsona arduratsuak eta jatorrak topatu ditut. Saskibaloiaren alde lan handia egiten dihardute. Eta gainera, etxetik gertu nago.

Nola sentitzen zara hobeto: jokatzen edo entrenatzen?

Ez daukat jokatzeko beharrik. Jokalari izan diren lagunek askotan esaten didate gustura jantziko zituztela berriro zapatilak. Nik, ez. Jokalari nintzenean, pozik ibili nintzen, eta orain, entrenatzaile lanetan ere pozik nago.

Lehen probintzialean diharduten senior mailako taldearen entrenatzaile zaitugu. Zer moduz doa denboraldia?

Oraingoz 10 partidu jokatu ditugu eta bakarra irabazi dugu. Zenbakiak begiratuta, denboraldi eskasa dela esan daiteke, sailkapenaren azken lekuan gaudelako. Dena den, bagenekien urte zaila izango zela. Jokalari gazteak ditugu. Esperientzia txikia. Gogor egin beharko dugu lan.

Asko aldatu da taldea iaztik?

Bai. Jokalari beterano batzuek taldea utzi zuten denboraldi amaieran. Gazte mailako bost jokalari igo ditugu, eta lehen urtea dute senior mailan.

Esperientzia eza aipatu duzu, baina zeintzuk dira taldeak dituen beste ezaugarriak?

Talde polita daukat: gaztea, baina polita. Azkar jokatzen dugu. Defentsa sendoa egin eta errebotea ondo ixten badugu, kontraerasoan irteteko baliabide asko ditugu. Joko polita egiteko taldea daukat, eta horrekin egin behar dut lan.

Asier Murua, Bergarako saskibaloiko senior mailakoen partidua hasi aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL

"Gustura nago Bergaran; pertsona arduratsuak topatu ditut"

"Ez dut jokatzeko beharra sentitzen; entrenatzaile lana atsegin dut"

Bestalde, jokalari batzuek eta nik ez dugu maila ondo ezagutzen. Elgoibarren entrenatzen egon nintzenean bigarren mailan jokatzen genuen. Bigarrenetik lehenera aldaketa nabarmena dago, jokoan eta taldeen mailan.

Talde indartsuak daude. Harrobiko kategoriatan lanean diharduzunean, ez da alde handirik egoten batetik bestera. Baina seniorretara heltzerakoan, bai. Bigarren mailatik lehenengora igotzen zarenean, taldeak sufritu egiten du.

"Bergarako saskibaloia sasoitsu dago: 11 talderekin dihardugu lanean"

"Epaileen lanari begira bagaude, gauza asko izango ditugu galtzeko"

Senior mailako jokalari eta arduradunak *Euskaraz bizi nahi* dutela aldarrikatzen. | J.A.

Gainera, astean bi entrenamendu saio bakarrik egiten ditugu, eta hori ere oztopo da taldearen hazkundean. Baina, 11 saskibaloi talde ditugu Bergaran, eta guztiek behar dituzte entrenamenduak.

Premisa horiekin, zein da denboraldirako helburua?

Konpetitiboak izatea. Gazteak gara eta ez daukagu esperientziarik, baina dakiguna egiten badugu, konpetitiboak izango gara. Hori da helburua: gure jokoa egin, taldea hobetu, disfrutatu, eta ahal den neurrian, partiduak irabazi [Barre]. Entrenamenduetan lantzen ditugun jokaldiak eta estrategiak partiduetan erakutsi behar ditugu.

Zurekin berba egin genuen azken aldian haserre zeunden epaileen lanarekin.

Bero-bero eta haserre nengoen. Etxetik kanpoko partiduetan, batez ere, Donostialdean, epaileek ez dute berdin zigortzen bi taldeen lana. Injustizia horrek amorrua ematen du, baina, garbi daukat, ezin garela epaileen lanari begira egon, edo epaileen lanari errua bota, partiduren bat galtzen dugunean.

Gure lana egin behar dugu, besteek egiten dutenari begira egon barik. Epaileen lanari begira bagaude, irabazteko baino askoz gauza gehiago izango ditugu galtzeko.

Kadete mailako neskak ere entrenatzen dituzu.

Bai. Seniorrak eta kadeteak, eta mutilak eta neskak. Baina, lana berdin-berdin egiten dut. Entrenatzaile gutxi gaude elkartean, eta denon artean banatu ditugu taldeak.

Zer moduz neskekin?

Oso ondo. Talde jatorra da eta giro ona daukagu. Gainera, ikasteko gogo handia daukate, eta hori antzeman egiten da.

Harrobiko mailatan, infantil, kadete eta gazte mailan entrenatzea errazagoa da. Goiko mailatan dauden jokalariak ohitura txar asko dituzte, eta horiek aldatzea oso zaila izaten da. Harrobian errazagoa da.

Dena den, entrenatzaile moduan asko ikasi dut egon naizen maila guztietan. Jokalariek nigandik ikasi dute, eta nik haiengandik.

Bergarako saskibaloia sasoitsu dagoela esan genezake?

Bai. 11 talde ditugu, eta horrek erakusten du harrobiarekin lan polita egiten dela. Harrobia zaindu behar dugu etorkizuneko jokalariak hezteko.

KULTURA

Maciej Frackiewicz, Nazioarteko irabazlea, saria jaso ondorengo emanaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

Gipuzkoako XXXIIII txapelketako egubakoitzeko saioko une bat. | J. A.

Oñatiko Musika Eskolakoek akordeoi doinuak kalera ekarri zituzten. | J.A.

Arrasate, mundu zabaleko eta bertako akordeoien hiria

▸ Hauspoz, elkarteak antolatzen du Arrasateko Udalaren laguntzarekin

▸ Akordeoia ardatz, askotariko doinuak 340 musikariren eskutik

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Egubakoitzean hasi eta domekara bitartean akordeoien soinu banda izan du, beste behin, Arrasatek. Taularen gainean eskarmentuko musikariak, nazioartekoak zein gertukoagoak; baina baita Gipuzkoako musika eskoletako ikasleak ere, dagoen harrobiaren erakusle. Maila eta helburu ezberdinarekin bada ere, maisuki transmititu zuten akordeoiarekiko duten maitasuna.

Aitor Furundarena, Hauspoz elkarteko lehendakariak baloratzio oso ona egin du aurtengo edizioaz: "Krisia krisi, Nazioarteko partaideen maila altua mantentzea ez da gutxi! Lehiaketa egonkortuta dago mundu mailan eta musikariak gogor lehiatzera etortzen dira Arrasatera".

Lehiakortasuna bultzatzeaz gain, Hauspozek ahalegin berezia egin du ikuspuntu pedagogikotik: "Zapatuan egin genuen musika eskolen jaialdiari ere berebiziko garrantzia ematen diogu, ikaragarria da ikusten eta transmititzen den ilusioa. Hartzaileari begira ere, badugu helburu pedagogiko hori: akordeoia herrira ekartzeaz gainera, herritarren artean sartu gura dugu, aretoetatik kanpo ere akordeoi doinuak entzutea nahi genuelako antolatu genuen Oñatiko musika eskolako ikasleekin zapatuko kalejira, eguraldiak baldintzatuta, udaletxeko arkupetako kontzertu inprobisatua bilakatu zena". Bestalde, urtero moduan, Arrasateko Udal ordezkariek ongi -etorria egin zieten akordeolariei; esker onak partekatzeko ekitaldi bilakatu zen. Inazio Azkarraga -Urizar alkateak emozioz esan zuen, zorte handia duela Arrasatek, munduko akordeoi leihoa izatean.

Aurtengo irabazleak

Amaia antzokian egin zuten azken gala, atzo, domeka; han banatu zituzten Gipuzkoako txapelketako eta Nazioarteko lehiaketetako sariak. Ekitaldi berezia izan zen, akordeoilariez gainera,Taun Taun antzerki taldeak ere parte hartu zuen.

Poloniara joan da Nazioarteko txapelketako sari nagusia. Furundarenaren esanez, "oso lehiatua izan da, lehen hirurek puntu bateko aldea izan dute-eta. Eskola eta estilo desberdinetako ordezkariak dira, horretan datza euren arteko ezberdintasuna".

Gipuzkoako txapelketan ere sekulako lehiakideak izan dira guztiak: "Txikienak ere emoziozko negar malkoak atera dizkigu" dio Furundarenak, gaineratuz: "Senior mailako bi finalisten maila nazioartekoetatik oso gertu zeuden". Sari nagusiez gainera, sari bereziak ere banatu dituzte, besteak beste, ikuslearena zein jatorrarenaren saria.

Aurtengoa amaituta, Hauspozekoak hurrengoari begira daude dagoeneko aurtengoaren arrakasta errepikatzeko.

Deabruak hartutako eskuin eskua

Ikaragarria izan zen Iosif Purits, iazko Arrasate Hiria, nazioarteko txapelketako irabazleak egubakoitzean Kulturaten egin zuen emanaldia; Aretxabaletan egin zuen bezperan. Atsedenik gabeko ordubeteko saio intentsuan, askotariko piezekin osatutako errepertorioan, XVIII.mendekoak zein gaur egunekoak; eta autoreei dagokionez, Bach, Paganini, Piazzolla zein Scarlattirenak.

Betetako Kulturateko aretora hurbildutakoen artean, batzuk adituak ziren eta kuriositateak bultzatutakoak best batzuk. Guztiak errespetuz, isil-isilik belarrietatik sartzen zenarekin garai eta toki ezberdinetara gustura bidaiatzen, begirik kendu gabe baina, deabruak hartuta zirudien eskuin eskuari. Beste behin, maisua maisu!

Iosif Purits, Kulturaten egin zuen emanaldiaren une batean. | JAGOBA DOMINGO

2012KO EDIZIOKO IRABAZLEAK

ARRASATE HIRIA

1. **Maciej Frackiewicz**
2. **Tomasz Ostaszewski**
3. **IYngvild Vivja Haaland Ruud**

GIPUZKOAKOA

1. **Helena Sousa (Senior)**
1. **Garazi Navas (Junior)**
1. **Sofia Ros (Infantil)**

Durangoko Azoka, kulturaren arnasgune arrakastatsua

Ijitoak eta Benito Lertxundi, besteak beste, protagonistak.

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Kulturaren topaleku jendetsu eta emankorra bilakatu da beste behin Durango asteburuan; aurtengoak aurreikuspenak bete egin ditu, bai salmenta eta bisitari kopuruen aldetik ere.

Iazko bisitari kopurua gainditu egin da, aurten egun bat gutxiago izan arren. Editoreak, sortzaileak eta saltzaileak ere pozik, krisiak jotako garaiotan, espero baino salmenta handiagoak eginda.

Gune berriek ere arrakasta

Jakina da Durangoko Azoka saltoki bat baino gehiago dela; horren erakusle azokak batzen dituen guneak. Antolatzaileen esanetan, helburuak bete egin dira horietan ere: berrienek harrera ona izan dute eta egonkortu eta gorpuztu egin dira gainontzekoak.

Irudienean interes berezia piztu dute 3Dn erakutsitako lanek eta baita film luzeek ere. *Areto Nagusia* aurkezpen areto bilakatu da urteurren historikoen inguruan antolatutakoekin. S*zenatokiak* jendea erakarri duen arren, kokaguneak moteldu egin du esperotako harrera. *Ahotsenean,* jendearen erantzuna paregabea Gerediagakoen hitzetan, ordutegia zabaltzeak lagunduta. *Saguganbarak* erabat finkatu du haren izaera. *Kabian*, aurrera begirako egitasmo askoren oinarriak finkatu dira.

Debagoiendarrak gustura

Asko dira aipatu beharreko izen propioak: Argizaiola saria eskuratu duen Benito Lertxundi eta Ijitoak (aurtengo kultura gonbidatua), esateko.

Debagoienekoak ere badira Azokan modu batera edo bestera parte hartu dutenak. Horietako askorekin izan gara eta gustura aurkitu ditugu guztiak.

Azoka telebistan lanean jardun duen lan-taldea. | E.A.

Landako gunetik salaraino zuzenean

Euskarazko tokiko telebistak eta EITB-k elkarlanean, azokaren barrunbeak etxeetara eramatea lortu du aurten salto kualitatiboa eta kuantitatiboa egin duen Azoka Telebistak, besteak beste, muga geografikoak gaindituz. Euskara hutsean, lau egunetan goizeko 10:30etik gaueko 23:30era zuzeneko telebista, ehun mila lagunengana heltzea lortu da.

Erabiltzaile askok eskertu dute egindako apostua sare sozialen bidez eta baita Landako gunean bertan ere; Landako guneko emisioak ere irabazi du-eta kalitatean. 24 metro karratuko pantailan erakutsi da Kultura Azokaren unean unekoa; besteak beste, *Szenatokia*, *Sagu Ganbara*, *Plateruena*, *Ahotsenea*, *Irudienea* eta areto nagusian gertatzen zena. Horretarako lan-talde zabala ibili da lanean. AzokaTelebista posible egin dutenen partetik: "eskerrik asko jarraitu gaituzuen guztioi!".

ENEKO AZKARATE

GOSE: "Aurreikuspenak gainditu ditugu; oso pozik gaude. Kontzertuan urduri geunden arren, karpa lepo bete zen. Iritzi onak jaso ditugu zaleen aldetik ere".

E.A.

MAUKA: "Gehien saldu ditugunak: Arkada Social; Never Surrender eta Itziarren Semeak taldeen azkenekoak. Iazkoarekin alderatuz, oso pozik gaude.

E.A.

INTXORTA Kultura elkartekoak saltokitik atera eta Pablo Beldarrainen 'Historia crítica da la guerra en Euskadi (1936-37)' liburua aurkeztu zuen atzo.

JOKIN BEREZIARTUA

NEVER SURRENDER Estreinekoz izan dira azokan eta oso pozik daude *Bide zuzenenetik oker* lanak, saltokian zein *Ahotsenean* izan duen harrerarekin.

E.A.

ASIER ALTUNA: "Oso pozik nago; *Bertsolari* DVDa azokako izarretako bat izan da. Ale asko sinatu ditut eta *Irudieneako* aurkezpenean ere aretoa bete zen".

E.A.

JUAN KARLOS IRIZAR: "Oso pozik nago herritar asko etorri zaizkit Oñatiko diskoaren bila. Asko gozatu dut; ederto konpondu naiz Su Ta Gar bizilagunekin".

E.A.

IBARRETXE Lehendakaria ere ikusi genuen Durangon. Larraitz Zeberio Azoka Telebistako kazetariaren galderak irribarez erantzun zituen.

E.A.

PELLO ZABALA urtero izaten da Durangon; asko izaten dira agurtzera joaten zaizkionak, oraingoan telebistako *Atsuak* pertsonaiekin harrapatu genuen.

AINARA KORTABARRIA

TXATXILIPURDI: "Jon Olivares eta Amaia Lizaranzuren eskutik, *Mundua koloretan* antzerkia egin dugu Saguganbara gune betean. Gustora gaude .

ENEKO AZKARATE

ANGER: "Urtebete jo gabe egonda, gozatu genuen *Ahotsenean*; kantu berri eta zaharrak jo genituen. Bonbereneako standera joan ginen gero, sinatzera".

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 61 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela egongela zabala, sukaldea eta komuna. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. 629 42 01 10

Arrasate. Zarugalden. Bi logela eder, egongela zabala, sukaldea eta komuna. Horrez gain, terraza zabala, balkoia, trastelekua, igogailua eta berokuntza indibiduala. Sukaldea eta komuna guztiz jantzita. 2006ko eraikina da. Interesatuok, idatzi zarugalde26@yahoo.es helbidera informazio edo argazki eske, edo deitu telefono zenbaki honetara: 660 20 58 92

Arrasate. Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larrañaga optika gainean. 90 metro koadrokoa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28 edo 665 72 46 12

Arrasate. San Andresko Leintzibar kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela eta egongela, igogailua eta berokuntza indibiduala. Denak kanpo aldera ematen du. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. Prezio interesgarria. 649 20 99 97

Eskoriatzan apartamentua. Apartamentu eroso eta eguzkitsua salgai. Prezio negoziagarria. Aukera paregabea. 653 71 53 58 edo 637 42 70 12

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Inigo. 659 72 06 64

Oñati. Lau logelako etxebizitza salgai Arantzazu kalean. Bikomun, sukaldea, egongela eta trastelekua. Jantzita. Igogailua eta berokuntza indibiduala. Oso eguzkitsua. Prezio interesgarria. Ez du berritu beharrik. 635 06 24 79

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadro erabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugela. Dena kanpoaldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: *www.euskalnet.net/aguirre*. 630 60 47 75

Arrasate. Erdialdean apartamentu berria ematen da errentan. Logela, bainugela, sukalde-egongela. Trastelekua. Pertsona batentzat edo bikoteentzat apartekoa. 639 17 49 52

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. 606 86 71 97

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Igogailutik gertu. Bi logelakoa. Oso argitsua. Leiho berriekin. Berokuntza zentrala. 665 73 98 32

Eskoriatza. 50 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan Intxaurtxuetan. 450 euro hilean. Logela bat, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea izateko aukera. 688 66 71 56

Oñati. 60 metro koadroko etxebizitza errentan eman edo saltzen da erdigunean. Hiru logela, sukalde-egongela eta komun bat. Igogailuarekin. Jantzita. Deitu arratsaldez mesedez. 651 70 90 53

Oñati. San Lorentzo 10ean hiru logela eta bi bainugelako etxebizitza ematen da errentan. Eguzkitsua. 943 78 13 57 edo 686 76 01 87

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Ahal bada erdialdean edo gertu. Hiru logelakoa. 679 60 08 48

Arrasate. Etxebizitza txiki edo apartamentu baten bila nabil errentan hartzeko. Deitu 653 72 43 19 telefonora.

Bergara. 2 edo 3 logelako etxebizitza alokairuan hartu nahi dut. 600 29 05 24

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. Prezio onean. Deitu 671 84 71 71 telefonora.

Bikote euskalduna Arrasaten pisu txiki baten bila. Bikote euskalduna eta arduratsua. Arrasaten pisu txiki baten bila gabiltza. Urtarrilean sartzeko. 636 38 81 00

Oñati. Etxebizitza behar dugu errentan emakume eta ume batentzat. Hilean 500-550 euro ordaindu ahal izango nuke. 628 08 85 98

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Bi logelako etxebizitza bat osatzeko lagun bat behar da, Nafarroa etorbidean. Deitu 635 70 79 69 telefonora.

Arrasate. Erdialdean gela ematen da errentan. 225 euro, gastuak barne. Hobeko emakumea bada. 943 77 13 02

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Inaki. 608 49 89 93

Bergara. Lagun bat behar da etxea osatzeko Bolun. Prezioa: 250 euro, dena barne. Wifiarekin. 670 85 86 68

Gasteiz. Logela ematen da errentan. Unibertsitate inguruan. 651 55 36 29

3. LOKALAK

301. SALDU

ARRASATE
Taberna salgai alde zaharrean.
666 40 65 19

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARETXABALETA
Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Esperientziarekin.
Bidali CV:
loel@hotmail.es

402. ESKAERAK

Arrasate. 54 urteko emakumea gertu lanerako. Deitu 943 79 60 89 telefonora.

Arrasate. Emakume euskalduna garbitasunak eta plantxa egiteko gertu. Baita umeak zaintzeko ere. 699 54 17 27

Arrasate. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, bai etxean bertan bizitzeko edo orduka, baita garbitasun lanak egiteko ere. 682 31 97 37

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:
943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO
- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Bergara, Arrasate edo Aretxabaleta. Neska lan bila etxeko lanak egiten edo nagusiak zaintzen. Tabernatan sukaldari. Oso langilea. Gidatzeko baimena eta autoa. 697 20 00 86

Bergara. Ikaslea naiz eta 15:30etik aurrera umeak zainduko nituzke. 669 17 22 56

Bergara. Neska tituluduna gertu nagusiak zaintzeko eta baita etxeko lanak egiteko ere. 680 77 06 46

Bergara. Umeak zainduko nituzke. 22 urteko neska euskalduna naiz eta umeekin esperientzia handia daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 68173361

Debagoiena. Emakume gaztea eta lana egiteko behar handiarekin, gertu pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 616 62 85 91

Debagoiena. Emakumea gertu atari eta abarren garbitasunak egiteko. Baita jatetxetan platerak garbitzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677 63 20 65

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, lokal, taberna eta abarrak garbitzeko, orduka. 696 88 93 73

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Nagusiak zaintzen eskarmentuduna. 688 69 07 28

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin, plantxa zein plater eta abarrak garbitzeko. Baita atari garbiketak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 40 42 03

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, garbiketa lanak, etxean bertan nagusiak zaintzen. Fatna. 638 26 98 40

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. 943 76 52 39

Debagoiena. Emakumea prest orduka edozein motatako lanak egiteko. 600 29 05 24

Debagoiena. Emakumea gertu garbiketak egin edo nagusiak zaintzeko. Legezko paperak ditut. 672 960 822

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, garbitasun lanak edo beste edozein lan. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentziaduna, nagusiak zaintzeko gertu. 633 28 81 24

Debagoiena. Mutil euskalduna, erizaintza tekniko osagarritako tituluduna eta esperientziaduna, etxetan nahiz baserrietan dauden nagusiak zaintzeko edo paseoan ateratzeko gertu. German. 619 08 40 08

Debagoiena. Mutil gaztea lan egiteko gertu: tabernak eta elkarteak garbitzen edo pertsona nagusiak zaintzen. Etxeko lanetan aritzeko eta elikagaiak maneiatzeko ziurtagiria. 622 77 60 75

Debagoiena. Mutila gertu haratagian lan egiteko. Baita sukaldari edo zerbitzari jardunteko ere. Nagusiak zaintzen ere arituko nintzateke. 647 15 18 23

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko, nagusiak zaintzen, garbiketa lanak. Arduratsua eta esperientziaduna. Intiaz. 632 18 53 17

Debagoiena. Mutila gertu lanerako: haratagi laguntzaile eta sukaldean lagundu edo garbiketak egiten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 91 33 40

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak edo menpekotasuna duten pertsonak zaintzeko. Geriatrian espezializatua. Arduratsua eta berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 75 52 61

Debagoiena. Mutila lan bila asteburuetarako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientzia duena lan bila dabil. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Etxean bertan bizi izateko gertu nago edo orduka lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 49 62 53

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. Orduka lan egiteko gertu eta pertsona nagusiak pasioan ateratzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan zaintzeko edo pasioan ateratzeko. 626 35 66 90

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, etxean bertan bizi izaten zein bestela. Esperientzia eta erreferentziaduna. 617 64 08 48

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, sukaldeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu, etxean bertan bizi izateko ere bai. 722 26 59 40

Debagoiena. Neska gertu etxean laguntzeko, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan jarduteko. Dendari ere bai. 630 20 12 03

Debagoiena. Neska gertu lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko ere bai. Etxean bertan bizi izateko gertu nago, asteburuak barne, edo orduka lan egiteko ere. Erreferentziak ditut. Deitu zenbaki honetara: 636 41 98 14

Debagoiena. Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 edo 688 80 27 01

Debagoiena. Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 12 56 87

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Debagoiena. Neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko, orduka. Baita garbitasun lanetarako ere. 672 70 71 25

Sukaldaria. Esperientziaduna, lan egiteko prest. Lorea. 677 64 84 82 edo 943 53 34 24

502. EMAN

Bergara. Irakaslea den mutil euskalduna Lehen Hezkuntzako edozein mailatako ikasleei klase partikularrak emateko prest. Ingelesezko klaseak ere ematen ditut. Esperientziaduna. Interesatuak deitu:. 645 72 01 50

Biolina. jotzen ikasi nahi duzula? Metodo erraz eta dibertigarria. Asteburuetan. Merke. 679 74 00 61

Goi mailako Ingenieritza. amaitu berri duen mutila eskola partikularrak emateko prest, Oñatin. DBH zein Batxilergoko ikasleei (fisika, matematika, kimika, mekanika, teknologia,.). Interesatuok deitu zenbaki honetara:. 636 00 18 22

6. MOTORRA

601. SALDU

Aukera. Ford Focus Ghia Sport Break auto familiarra salgai. 1800 TDCI. 35.000km. Laberria. 617 13 17 51

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Ahuntzak eta antxumeak. Sei ahuntz eta lau antxuma salgai daude. Lau ahuntz umeak egin berri, beste bat umea egiteko eta bestea urtekoa da. Lau ahuntz txiki eta aker bat ere salgai daude. 671 71 90 96

Indioilar beltzak. Hiru hilabetekoak eta urtebetekoak. Bikotea, 70 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 96 55 edo 690 65 39 37

Katu pertsak. Hiru hilabetekoak. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. 620 60 73 40

702. EROSI

Ehizako txakurkumea saldu edo emateko baduzu, deitu: 619 87 95 57

703. EMAN

Katuak opari. Urtebeteko katuak oparitzen dira. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 669 72 08 93

704. BESTELAKOAK

Etxeko katua aurkitu dut Arrasaten. Etxeko katu bat aurkitu nuen ostiralean, gris kolorekoa (europear arrunta arrazakoa), emea eta gaztea. Ferrerias kale inguruan azaldu zen. 653 72 43 19

8. DENETARIK

801. SALDU

Autorako segurtasun aulkia. 0-13 kilorako "Maxi-Cosi" etxeko segurtasun aulkia salgai, Easyfix oinarrirekin. Quinny, Bugaboo zein bestelako aulkietan jartzeko bi egokigailu ere bai. Prezioa: 100 euro. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 21 37 18

Bizikleta. Orbea Orca Gold 2012. 55 neurriko koadroa, estreinatzeke. Shimano Ultegra errobera berriak, karbonozkoak, VH-RS 80 erreferetnziakoak. FSA k-Force eskulekua, karbonozkoa. Shimano Dura-Ace taldekoa. Jokin. 629 37 37 12

Concord Neo Trio. Condord Neo 2009 aulkia, kapazoa eta maxicosia salgai. Oso gutxi erabilia. Berria bezala. Poltsa, euritarako plastikoa, eguzkitakoa eta aterki euskarria opari. 250 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 99 26 40

Egurrezko mahaia eta sei aulki. Mahaiaren neurriak: itxita 1,50m eta zabalik 2,20m. Egoera oso onean. Aulkiaren jarlekuak urdinak dira. Dena 250 euro. Interesatuok deitu telefono honetara. 685 72 08 01

Etxetresnak. Ontzi-garbigailua, arropa-garbigailua, hozkailua, labea eta bitrozeramikazko plaka salgai. 800 euro. Mahaiak eta aulkiak oparitzen dira. 697 90 52 47

Gellaon. Iursaila salgai. Fruta arbolak, tantaka bidezko ureztatze sistemarekin. Txabolatxoa. Ur manantiala. Aretxabaletatik 5 minutura eta Eskoriatzatik 10era. 605 77 27 69

Gitarra elektroakustikoa. Ovation CC24 gitarra elektroakustikoa salgai. Atzealde biribildua. Gutxi erabilia. 240 euro. 646 377 657

Kristalezko mahaia. Bulegorako kristalezko mahaia salgai. Berri-berria. 619 87 95 57

Mini kuma. Umeendako mini kuma eta izarek salgai Debagoienean. 606 19 89 56

Soinu handia. Soinu handia salgai. Delicia etxekoa, gorria. Piano itxurako tekladuna. 80 baju. 165 euro. 697 25 92 48,

Trialeko botak. Hebo zuriak dira, egoera onean eta gutxi erabilita. 37 zenbakia. 55 euro. 630 66 07 19,

Umearendako aulki tolesgarria. Castle etxekoa. 30 euro. 606 78 30 30

Umeendako karroa. Bugaboo etxeko karroa salgai Debagoienean. Beltza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 19 89 56

Umeendako karroa. Mutsy Urban Rider karroa. Traveller aulki eta osagai guztiekin. Prezio oso onean. 656 74 94 40

Xurgagailua. Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilitakoa. 659 62 02 49

802. EROSI

Antzinako gauzak jaso edo erosten dira: bizikletak, josteko makinak, argazki kamarak, idazteko makina... Egoeraren arabera ordaintzen da. Emailez edo watsapp bidez argazkia bidali edo deitu. 678 47 43 54

Estetikako materiala. Estetikako bigarren eskuko materiala erosteko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 619 87 95 57

804. HARTU

Bizikletak. Bizikleta botatzeko moduan badaukazu, nik jasoko dizut. Berdin da zein egoeratan dagoen eta zein motakoa den. Jasotzera joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

Butanozko berogailua. Martxan dagoen butanozko berogailua hartuko nuke. Ordaintzeko prest nago. 658 71 44 37, 943 76 40 87

806. GALDU

Telefonoa Aretxabaletan. Telefonoa galdu nuen Aretxabaletan, San Migel jaietan. Nokia E72 modeloa, beltza eta zilar kolorekoa. Aurkitu duenari eskertuko nioke SIM txartela besterik ez bada itzultzea. Eskerrik asko. 608 17 00 00

808. BESTELAKOAK

Doctor Deseo taldeari buruzko lan bat egiten nabil. Sarrerak, elkarrizketak eta duzun materiala jasoko nuke, originalak edo fotokopiak. Eskerrik asko!. 639 03 25 97

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. 'Google SketchUp'-eko hastapen mailako eskola partikularrak jaso nahi nituzke. 652 55 88 31

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FARMAZIA

AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA
Bergara / 646 06 28 18
arkaitz.irazabal@gmail.com

BEITIALARRANGOITIA ALZELAI, IONE
Arrasate / Uarkape kalea 14, behea / 657720049

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Autobus elektrikoek geltokietan kargatzeko aukera izan dezakete | XATAKA

Autobusa berriro berandu? Bateria kargatzen da

Geltoki bakoitzean bateria kargatzeko aukera ikertzen ari dira Utah–n

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE

Utah-ko unibertsitatean (AEB), autobusen modelo eletrikoak baliatuz, autobus elektrikoek geltoki bakoitzean energia kargatzeko aukera izan dezaten hausnarketak eta probak egiten ari dira. Honetarako, indukzio teknika bat aukeratu dute, kableak eragozpen bat izan ez daitezen.

Geltoki bakoitzean kokatuta

Haririk gabeko sistema, autobusak dituen geltoki bakoitzean dago kokatuta. 'Aggie Bus' deiturikoak dira eta autobusa gelditzen den bakoitzean, garraiobidearen bateriak partzialki kargatzen dira.

Proiektuko ingeniariek diotenez, autobus hauentzat erabilitako bateriek ez dute zertan edukiera handikoak izan behar. Izan ere, dosi txikietan kargatzen joango dira, aldi berean, garraiobideen pisuari eta kostuari ere mesede eginez. Hala ere, edukiera handiagoko eta pisu gutxiagoko baterien erabilpena ere ikertzen ari dira.

Elektrikoaren alde

Proiektu honen bultzatzaileek eta alor honetan lanean ari diren konpainiek, garraiobide elektrikoen aldeko apustua egiten dute. Horren harira, jasotako energia kable barik eta ahalik eta modurik egokienean egitea nahi dute. Audi edota Nissan, Daimler-ekin batera, dira konpainia horietako batzuk.

Megaupload-en ordezkoa datorren urterako: Megabox

M.G. | ARRASATE

Megaupload-en sortzailearen ekimen berria datorren urtean egongo da erabilgarri. Kim Doctomen Megaupload, Megabox bihurtuta, 2013ko urtarrilaren 19an egongo da eskuragarri. Hain justu, Kim Doctom atxilotua izan zenetik urtebete igaro eta gero. Doctom berak bere Twiterrean azaldu duenez, "egun berean eta Megaupload-ek eskaintzen zuen zerbitzua baino hobea eta edukiera gehiagorekin, gainera".

Premium kontaktuak errespetatuko ditu

Eskainiko duen zerbitzuari dagokionez, adituek oraindik ezer gutxi dakite zerbitzu berri honen inguruan.

Diotenez, Megabox Spotify, iTunes eta Pandora-ren lehiakide izango da. Doctom-ek aurreratu duenez, Megaupload-eko premium kontuak errespetatuko ditu. Gainera, arazoak ekiditeko, zerbitzu berriaren zerbitzariak AEBtik kanpo egongo direla ziurtatu du. Bere ustez, zerbitzuari esker, musikariek diru gehiago irabazteko aukera izango dute, "diru sarreren %90a beraientzat izango da-eta".

Megabox lainoa

Doctomek adierazi duenez, bertsio berrian, zerbitzariak herrialde konkretu batean kokatua egon beharrean, informazioa Megaboxeko 'lainoan' sakabanatuta egongo da. Ondorioz, hasiera batean behintzat, ez da inongo lege zehatz bati lotuta egongo. 2013ko urtarrilak 19ra arte itxaron beharko da Megabox berria estreinatzeko.

Megabox zerbitzari berriaren logoa. | GIZMODO

Facebooken, pribatutasunari buruz hausnartzen. | FACEBOOK

Pribatutasun nahikoa dago?

Facebook–eko erabiltzaileek pribatutasunari buruzko iritzia eman dezakete

M.G. | ARRASATE

'Facebook Site Governance' titulupean, sare sozial famatuak erabiltzaileen ahotsa entzun nahi du. Egun hainbeste hitz egiten den pribatutasunaren gainean zein iritzi duten, nola bizi duten eta zer proposatzen duten jaso nahi dute. Abenduaren 10era arte eman ahal izango da bozka pribatutasunaren inguruko arau berrien inguruan.

Aukera honek erabiltzaileei beraiei emango die pribatutasunari eman beharko zaion lekua zein den erabakitzeko eskubidea. Azalpen dokumentu bat ere luzatu dute, edozein zalantza izanez gero bertan argitu ahal izateko.

Erabiltzaileko botu bana

Erregistratuta dagoen erabiltzaile bakoitzak behin bozkatzeko aukera izango du. Momentu honetan, Facebook-ek hilabeteko mila milioi erabiltzaile aktibo baino gehiago ditu. Horietatik gutxienez %30 batek bozkatu beharko du bozkaketa eraginkorra izan dadin. Hau da, 300 milioi pertsonek.

Aldaketa esanguratsuak

Facebook-ek adierazi duenez, erabiltzaileek duten iritziari garrantzia ematen diote eta bozkatuko diren aldaketek berebiziko garrantzia dute erabiltzaileentzat. Esaterako, erabiltzaileen hainbat datu agerian gera litezke eta sare sozialak hauek erabiltzeko eskubidea izango luke, Facebook-en berezko Instragram moduko enpresekin, adibidez.

Kontuak kontu, Facebook-ek bere erabiltzaileen esku jartzen du hainbat erabaki hartzeko eskubidea. Orain, erabiltzaileek erantzun beharko dute.

'TomTom'-ak Androiderako duen aplikazioa hobetuko du

M.G. | ARRASATE

Lehenengo iOS sistema operatiborako aplikazioa eguneratu zen eta, orain, TomTomak ere, Androideko smartphon -etan gauza bera egingo du.

Bertsio berri honekin, merkatuan sartu berri diren terminal garrantzitsuenekin bateragarritasun gehiago izatea dute helburu. Horien artean, HTC One X edo Nexus 4 daude. Horrela, 800x480 eta 1280x800 pixel arteko bereizmena duten pantailak dituzten telefonoek arazo barik instalatu ahal izango dute TomTom v1.1 aplikazioa. Bestalde, datu -bilketari dagokionez, Android hauetan mapak eta datuak berez gordeko dira memoria txartel batean. Horrela, barne -espazioaren erabileraz arduratu beharrik ez da izango.

Hogei urte igaro dira lehen SMS-a bidali zenetik

M.G. | ARRASATE

Erresuma Batuan bidali zuten lehen SMS-a. Vodafone etxearen seinaletik bidali zen eta honako hau zioen: "Merry Christmas".

Nokia etxeari esker egin zen ezaguna zerbitzu berria, 1993an atera zuen telefonoari esker. Zerbait esklusiboa zen hura urte gutxian mundura zabaldu zen, telefono konpainia guztietara, alegia.

Egun teknologiak duen erritmoarekin, gauzak dezente aldatu dira harrez geroztik. Orduan, mezua bidaltzea garestia zen oso. Gaur egun, SMS-ak ia erabat alboratu eta Whatsapp edo Line bezelako programek aurrea hartu diote. Informazio gehiago bidaltzeko aukera ematen dute eta, nola ez, doakoak dira.

TELE-BEGI

LEIRE KORTABARRIA

Kontzientziadun aurkezleak

Bere burua ezkertiar, progre eta *majotzat* duten kateek berezko gisa hartu dute nolabaiteko *onismo* bat, eta honelako diskurtso baten laburtu daiteke: onak gara, langileak, herrikoiak, zure modukoak; kontzientzia sozial handia dugu eta zuri, ikusle, erakutsi nahi dizugu –lezioak eman nahi dizkizugu, alegia– nola izan gizarteko pertsona kontzientziatua, nola eta zeren aurka protesta egin, zerengatik mobilizatu. Progresio sozial horretan, gainera, telebista enroilatu honetako izarrak zure pontifizeak izango gara.

Gabonetan, batez ere, gure elkartasun grinari eragiten diote, eta gu baino okerrago bizi direnendako dirua ematera animatzen gaituzte, nahi ez ditugun egutegi solidarioak erostera bultzatuz (non eurak diren protagonistak), GKEendako diru-sarrerak eginez, umeen aita edo amaponteko eginez eta beste.

Eta gero, beste iturri batzuetatik, aurkezle jator, txistoso eta *gorri* horiek kobratzen dituzten milioien berri izaten dugu. Hain kontzientzia ona badute, ez da eurendako samurragoa, bada, dirutza horren zati bat pobreei ematea eta ez gure poltsiko gero eta meheagoak astintzea?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 10

'Harmailatik'

Asteburuan gure kirolariek egin dutenaren errepasoa egingo du Xabi Urtzelaik astero bezala. | **22:02**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:12 Zorion Agurrak
13:15 Onein
13:45 Gipuzkoa kultura
14:15 Ekogune
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 Abesbatza lehiaketa
15:46 Bertso saioa
16:46 Ur eta lur
17:23 Zorion Agurrak
17:26 Berriak
17:51 Eguraldia
17:53 Onein
18:25 Ekogune
18:55 Bertso saioa
19:55 Berriak
20:15 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Gurean gaur
22:02 Harmailatik
22:47 Berriak
23:07 Eguraldia
23:10 Magazinea
23:55 Harmailatik
00:40 Berriak
01:00 Eguraldia

MARTITZENA 11

'Gurean Gaur'

Nagore Uriartek aurkeztutako saioa, tokiko telebistek egunero elkarlanean egindako albistegia. | **21:05**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Harmailatik
15:53 Onein
16:18 Antzerkia: "Bai, nahi dut"
17:18 Berriak
17:38 Eguraldia
17:41 Harmailatik
18:26 Gipuzkoa kultura
18:56 Antzerkia: "Bai, nahi dut"
19:56 Berriak
20:18 Eguraldia
20:20 Magazinea
21:05 Gurean gaur
22:05 Berriak
22:25 Eguraldia
22:30 Magazinea
23:15 Antzerkia: "Bai, nahi dut"
00:15 Berriak
00:35 Eguraldia

EGUAZTENA 12

'Ekogune'

Julen Iriondok gidatutako saioak, ekologiarekin lotutako beste erreportaia bat ekarriko digu. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Hamaika.bit
13:45 Bertso saioa
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:33 Onein
15:58 Harmailatik
16:43 Berriak
17:03 Eguraldia
17:05 Berbetan
17:40 Beranduegi.tv
18:00 Goierri Creation Center
18:35 Ur eta lur
19:11 Harmailatik
19:52 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Ekogune
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:55 Magazinea
23:40 Gipuzkoa kultura
00:10 Berriak
00:30 Eguraldia

EGUENA 13

'Gipuzkoa Kultura'

Tolosako Titirijaia 2012 txotxongilo jaialdia eta bideojokoen gaineko erreportajea saio honetan. | **22:00**

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Ekogune
13:40 Hamaika.bit
14:13 Onein
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Hamaika.bit
15:41 Beranduegi.tv
16:06 Ekogune
16:36 Berriak
16:56 Eguraldia
16:59 Onein
17:29 Ur eta lur
18:06 Hamaika.bit
18:32 Planik bai?
18:52 Goierri Creation Center
19:29 Zorion Agurrak
19:34 Berriak
19:54 Eguraldia
19:56 Planik bai?
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
22:00 Gipuzkoa kultura
22:30 Planik bai?
22:50 Berriak
23:10 Eguraldia
23:13 Magazinea
23:58 Ekogune
00:28 Berriak
00:48 Eguraldia

EGUBAKOITZA 14

'AsteOn'

Gaurkotasunarekin lotutako albiste eta erreportaiak ekarriko dizkigu Arritxu Barrusok gaur. | **22:00**

11:30 Planik bai?
11:50 Magazinea
12:35 Zorion Agurrak
12:40 Gurean gaur
13:10 Onein
13:42 Antzerkia: "Bai, nahi dut"
14:42 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Bertso saioa
16:28 Gipuzkoa kultura
16:58 Beranduegi.tv
17:18 Zorion Agurrak
17:23 Berriak
17:43 Eguraldia
17:46 Planik bai?
18:06 Zorion Agurrak
18:10 Ekogune
18:40 Goierri Creation Center
19:17 Beranduegi.tv
19:43 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:07 Eguraldia
20:10 Planik bai?
20:30 Gipuzkoa kultura
21:00 Gurean gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Bertso saioa
23:53 AsteON
00:23 Planik bai?
00:43 Berriak
01:03 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Durangoko Azokaren errepasoa Arrasate Irratian

Gaur egunean zehar Durangoko Liburu eta Disko azokan gertatutakoaren errepasoa egingo dugu Arrasate Irratian. Horretarako, Elkar argitaletxekoekin, azokako langile batekin edo lana bertan aurkeztu duen musikari batekin egongo gara kontaktuan. Azokaren errepasoa gaur bertan.

'Begira!Arrasate' erakusketari buruzko elkarrizketa

Martitzenean, Xabier Zubizarreta *Txiron* irratian izango dugu gurekin Sustraiak Errotuz taldeak antolatutako erakusketaren gainean hitz egiteko. *Begira! Arrasate* deitzen da erakusketa eta azarotik Kulturaten ikusgai dago. Gehiago jakin nahi baduzu, sintonizatu 107.7 uhinak.

Los Cretinos taldeak disko berria aurkeztuko digu irratian

Los Cretinos taldeko Zabba eta Barba irratian izango dira lan berria aurkezteko. *Addictos Sonitus* deitzen da disko berria eta Xixongo Circo Perroti estudio analogikoan grabatu zuten udan. Grabaketari buruzko bitxikeriak eta kanta berriak entzun nahi badituzu, egon adi Arrasate Irratiko programazioari.

TELE-ALBISTEAK

Titirijai txotxongilo jaialdia eta bideojokoak Gipuzkoa Kulturan

Tolosan ospatutako 30. nazioarteko txotxongilo jaialdiaren berri izango dugu eguenean

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

30 urte pasatu dira Tolosan lehenengoz nazioarteko txotxongiloek agerraldia egin zutenetik, eta dagoeneko Titirijai jaialdia urte mundu osoan erreferente bilakatu da. Aurten, ez da ezer aldatu, eta munduko hainbat lekutako txotxongilozaleek azaroaren 24a eta abenduaren 2aren artean Tolosan izan dute bilgunea.

Urtero, munduko herrialde jakin bati leiho bat zabaltzen diote, protagonismo berezia emanez bertako txotxongilo, kultura eta istorioei; aurtengoan, berriz, herrialde bati ez ezik, Latinoamerikako hainbat herrialderi zabaldu dizkiete leihoak.

Bestalde, *Gipuzkoa Kultura*koak Titiriteros de Binefar txotxongilo taldeko kideekin egongo dira *El bandido cucaracha* saioa ikusteko, eta antolakuntzan jaialdia hasi zenetik darabilen Enkarni Genuarekin ere hitz egingo dute.

Bideojoko laborategia

Txotxongiloez gain, aste honetako *Gipuzkoa Kultura* saioan, bideojokoei buruzko kontu berriak

Titirijai 2012 jaialdiko emanaldi bat. | TITIRIJAIA

Txotxongiloen nazioarteko jaialdia eta bideojokoen inguruko laborategia

ikasteko aukera izango dugu. Artelekuk antolatutako *Laborategia* izeneko saioaren berri izango dugu. Bertan, bideojokoen kontzeptua eta mekanismoa aztertzeko asmoz herri askotako hainbat profesional eta zale elkartzen dira. Eta askotariko iritziak entzuteko asmoz, Mikel Calvo, bideojokoen programazioan aditua; eta Andre Goncalvez, zientzia eta arteen teknologiako ikertzailearekin egongo dira aste honetako *GK* saioan.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Nerea Artola
Abenduaren 7an, urtebetetzea. Urtebetetze festaren bixamonaz bazatoz be, beti bezala goxo etorriko zarela badakigu lankidiok. Zorionak!

ANTZUOLA
Eli Iturbe
Abenduaren 11n, 40 urte. Zorionak, amatxo. Nahia eta June.



OÑATI
Jose Arregi
Abenduaren 11n, Urtebetetzea. Munduko senar, aita eta aitaitarik onena zara. Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna. Zorionak familia osoaren partetik.

ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, 4 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eta muxu asko etxekoen partetik!

OÑATI
Maddi Oyhagaray
Abenduaren 9an, 9 urte. Zorionak, Maddi! Zuk hainbeste desiatzen zenuen egun berezi hau iritsi da. Disfrutatu zure bederatzigarren urtebetetzean eta zarien bezala jarraitu.

BERGARA
Nerea Agirrezabal
Abenduaren 9an, 18 urte. Zorionak, guapisima! Espero dou zapatuan ondo zelebratuta geldittuko diela 18 urtiak! Muxu handi-handi bat kuadrillakuen partetik!

BERGARA
Nerea Vicente
Abenduaren 9an, 44 urte. Zorionak! Oso ondo pasatu urtebetetzea eta milaka muxu gure partetik. Zure kuadrila.



BERGARA
Eneko Egaña Larrañaga
Abenduaren 9an, 20 urte. Zorionak, Eneko! Zure pizzerixako lagun minen partetik. Ondo aprobetxatu eguna! Lasai, afari goxo batekin ospatuko dugu-eta! Aupa hi!

ARETXABALETA
Josu Hernando Gutierrez
Abenduaren 8an, 6 urte. Zorionak, txapeldun, sei urte dagoeneko. Patxo handi bat familiakoen partetik!

ARRASATE
Nora Tena Azkarraga
Abenduaren 7an, 6 urte. Zorionak, politxori, Izaro, amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partetik. Ondo pasatu eta patxo handi bat pitxin. Mua!

OÑATI
Aloña Axpe Elkoroiribe
Abenduaren 7an, 3 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat familikoen eta lagunen partetik.

ARAMAIO
Eñaut Garai Gutierrez
Abenduaren 7an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi bat etxeko danon partetik, batez be Auritzek.

BERGARA
Aimar Anakabe Iturbe
Abenduaren 6an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Familia eta lagun guztien partetik, patxo handi bat.



ARRASATE
Oxel Azurmendi Casas
Abenduaren 6an, 2 urte. Zorionak aitatxo eta amatxoren partetik. Egun zorragarria pasa dezazula opa dizugu zure familia eta laguntxo guztiekin.



BERGARA
Peru Maure Azkarate
Abenduaren 4an, urtebete. Zorionak, potxolo. Zure lehenengo urtebetetzea majo ospa dezazun opa dizugu familiako guztiok. Patxo handi bat!

ARETXABALETA
Inun Zabala
Abenduaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, tia! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Ea opari asko jasotzen dituzun. Muxu asko.

DEBAGOIENA
Julene Sarabia Mendia
Abenduaren 2an, 9 urte. Zorionak, trikitijole! Alai eta kantari pasa ezazu egun ederra zure familiaz gozatuz! Familian partetik.

LEGUTIO ETA ARETXABALETA
Maide Unzalu eta Oier Madinabeitia
Maidek azaroaren 29an, 4 urte eta Oierrek abenduaren 7an, 11 urte.
A ze parea, karakola eta barea!
Zorixonak eta urte askotarako! Zueik hainbeste desiretan zaubiezen egunek ailegau dire. Ikeragarri maite zaituztegu eta zarien moduen jarraitu.
Laztantxu bana, sendikuen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:
ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.
OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.
ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA

Andresa Anduaga Markuleta

Oñatin hil zen 2012ko abenduaren 5ean, 92 urterekin.

Amama, gure artetik fan arren, beti egongo zara gure bihotzian, gure pentsamenduan, gure bizitzan... sentimentuetatik borraittia ezinezkua da eta.

Zure bilobak .
Oñatin, 2012ko abenduaren 10ean.

JAIOTAKOAK

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

Lander Elortza Garcia

Angiozar. 3,700 Kilo. Abenduaren 3a. Gurasoak: Paki eta Eneko. Argazkian, Lander amaren besoetan.

Hodei Gutierrez Garcia

Aretxabaleta. 3,850 Kilo. Abenduaren 4a. Gurasoak: M. Jose eta Alex. Anaia, Unai. Argazkian, Hodei kuman, lasai-lasai.

Niko Goikoetxea Agirre

Antzuola. 3,200 Kilo. Abenduaren 4a. Gurasoak: Joseba eta Usoa. Argazkian, Niko gurasoekin.

BABESLEA:

tipi tapa
Oinetakoak
Arropa
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25
ARRASATE
Tel.: 943 79 17 47
tipitapa@hotmail.es

Jarraitu gaitzazu Facebooken:

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK



		Segizio *Gaika biltzeko hondakinak	▼	Nekaraziak Udalerriak	▼	Ikatz egiteko txondor Aranondoen fruitua	▼	
		▶		▼		▼		
		Uda Arnas ezak hilak	▶					
Eramaile Tratulari, merkatari	▼	Dardaraz Ale landare	▶ ▼					
▶		▼						
Dena, guztia Baratzeko produktu	▶			Gari sorta Ohorezko hitz emate	▶			
▶				▼			Boroa Hizki baten izena	▶
Buruaren alde Marokoko hiria	▶				Erne! Bokala	▶	▼	
▶			Nekadura	▶	▼			

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.

SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	E	K	E	N		Z	E	F
I	D	A		I	K	O	L	
B		I	K	Z	A	R	A	B
O	A	Z	A		O	R	O	
T	N	A	L	U	T	A	R	T
Z	A	R	A	K	I		E	
A	R	A	D	U				
K	A	N	U	H	E			
I		U		A				

BILA-BILA 7



AI, ENE!

Eta honi, isuna jarriko al diote?

Jakina da gidatzen bagoaz ezin dugula mugikorra eskuetan hartu. Erosoa izan edo ez, gidari honek aurkitu du konponbidea.
www.sarda.es

AHOBERO

"Nire belaunaldian ez dago feminista izan beharrik"

CARLA BRUNI | MODELO ETA ABESLARIA

Feministak sutan jarri ditu Frantziako lehen dama ohiak, eta Twitter bidez feminista izateko arrazoien zerrenda egin diote. Brunik barkamenak eskatu ditu, esaldia baldarra dela eta bere pentsaera ez duela ondo islatzen argudiatuta. Eskerrak!
Vogue

EGURALDIA

Max. 10º
Min. 4º

Zerua hodeitsu geratuko da, erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin; ateri egongo da.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2012-12-10

HAMARREKOA

Markel Irizar Egun RadioShacken korritzen duen txirrindulari oñatiarrak helmuga benetan garrantzitsua gainditu berri du hamar urte eta gero: minbizia atzean uztea. | TXOMIN MADINA

"Ez dut uste eredu naizenik; inork baino akats gehiago ditut"



AGM

1. Hamar urte eta gero, akabo da. Jakitean, zer izan zen burutik pasa zitzaizun lehenengo gauza?
Bake sentsazioa. Esaten dizutenean zama kentzen duzu gainetik, badakizu ez duzula itzuli beharrik: probak egitean urduri jartzen naiz, eta orain lasaitasuna dut.

2. Urte hauetan zenbatetan pentsatu duzu: "Zergatik?"
Momentuan pentsatu nuen "zergatik niri"; baina saiatu naiz horretan denbora galdu gabe aurrera begiratzen. Esango balidate ez naizela minbiziaz hilko, ez nuke gertatua aldatuko: pertsona gisa aldatu naiz, eskola txiki bat izan da.

3. Askorentzat eredu izango zara.
Ez dut uste; inork baino akats gehiago ditut, eta bertute gutxi. Izugarrizko dohain fisiko gabe edo sekulako ospitalean tratatu gabe ere sendatu daitekeela erakutsi ahal du nire kasuak, eta horrela bada, asko poztuko nintzateke.

4. 32 urterekin, gertu ala urrun ikusten da erretiroa?
Urrun izatea nahi arren, zenbakiak ikusita gero eta gertuago dago. Badakit asko kostatuko zaidala bizikletan lehiatzeari uztea.

5. Txirrindularitzak utziko dio inoiz susmopean egoteari?
Nahiko nuke! Ni momentu oso onean nago eta penatu egiten nau dopinaz berba egiteak. Kasu asko egon dira, eta alde batetik merezita dugu; baina azken urteotan gauzak oso ondo dabiltza egiten.

6. Behin baino gehiagotan defendatu duzu Lance Armstrong.
Nire iritzia ez da objektiboa, eta ez du hirugarren batek esandakoak aldatuko: nirekin oso ondo portatu da. Txirrindularitza baino garrantzitsuagoa da minbizia gainditzea eta asko errespetatzen dut.

7. Kontuak kontu, hedabideekin harreman estua izaten duzu.
Ez dut atsegin eta ez diot inori penarik eman gura, baina nire kasuagatik hedabideetan asko egotea tokatu zait. Bilatu ez arren, lanaren zati da gure babesleari ahalik eta irudi onena ematea.

8. Errepidean dagoen txirrindulari baten atzetik doan gidaria naiz. Nola baretuko nauzu?
Guk askotan gauzak ez ditugu ondo egiten, baina askotan gidariek ez dituzte arauak ezagutzen; esaterako, binaka joan gaitezkeela. Elkarbizitza eta errespetu kontua da.

9. Oñatiarra Arrasaten bizi izaten. Entzungo dituzu zureak...
Oñatin gehiago: Oñatitik irtetea Zeelanda Berrira joatea bezala da lagunentzat! Emaztea Arrasatekoa da, eta nik hainbeste egun kanpoan emanda bertan bizitzea erabaki genuen. Oñatira joatean baina, zerbait berezia sentitzen dut.

10. Tourmaleta igotzea edo hiru ume izatea: zer da nekagarriagoa?
Akaso umeak, baina Tourmaletak ez dit zoriontasun gehiegi eman. Politena da, iaz bezala, Tourmaleta igotzean umeak han egotea.

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Osasuna eta alaitasuna denontzat"

"Hain sinplea eta aldi berean hain zaila den zerbait egingo nuke: mundu guztia osasuntsu eta alai egotea. Horrek arazo bat bera ere ez izatea ekarriko luke: ez lanean, ez familian... Denok %100ean osasuntsu eta %100ean alai egongo bagina mundu perfektua izango litzateke".

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA

Munillaren konpainiak

Bergarako Trinitate monasterioko bizilagun berriek jesukristoren morboa piztu dute. Arrasateko txikiteoan ere entzun dira komentario likitsak. Gazteak dira, asko europar ilehoriak, footing egiten dute... Orain arteko serora adinduekin zerikusirik ez alafede. Ni ordea beste asunto batengatik berotu naute. "Karitatetik" bizi dira, mundu zabalean hainbat komentu duten arren. Eta bergarar batzuk "arduratuta" omen daude jatekorik ere ez dutelakoan. Lizuna. Intereconomian leitu dudanez, beste ordena bateko "disidenteek" sortu dute moja horiena, boterea eskuratzeko barne borroken ondorioz. Eta gurera iritsi dira Munillaren bedeinkazioarekin. Okupatu duten komentua hustu zenean adierazi zuen gotzainak beste konpainia bat ekartzeko asmoa. Eta are gehiago: askotan ez dela "ulertzen" kontenplazioseroren funtzioa, baina "bizi ditugun gauza on asko eurei esker direla, ezkutuan, Jaungoikoari errezatzen eta sakrifikatzen egindako lanari esker". Sinesmen oro errespetatzen dut eta jendartearentzat fin diharduten erlijiosoak badirela onar dezaket. Baina abitua baino larru sendoagoa duten bizkarroiei, zopakorik ere ez. Potrojorran egoteko jo dezatela Munillaren atean.